# JARDUEREN TXOSTENA

# 2010

CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

# JARDUEREN TXOSTENA

# 2010

CES
EGAB

Consejo Económico
y Social Vasco

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte
Arazoetarako Batzordea

# Aurkibidea

AURKEZPENA .......... 5

EGABren jarduera 2010. urtean .......... 7

ZIURTAGIRIA .......... 9

I. EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEA .......... 13

1. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea .......... 15
   - Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen historia
   - Euskadiko EGAB. Sorrera eta izaera
   - Eginkizunak
   - Nork osatzen du?
   - Euskadiko EGAB-aren berriztatzea 2010ean

2. Euskadiko EGABren organoen eta lan-batzordeen eraketa 2010ean .......... 18
   - Osoko bilkura
   - Batzorde Iraunkorra
   - Garapen Ekonomikoaren azterketarako batzordea
   - Gizartearen garapenaren azterketarako batzordea
   - Memoria sozioekonomikoa egiteko batzordea
   - Akitaniarekin lankidetzaren aritzeko lantaldearen eraketa

3. Euskadiko EGABren lan-organoek eta -batzordeek 2010ean egindako bileren laburpena .......... 25
   - Euskadiko EGABren Osoko bilkurak egindako bilerak
   - Euskadiko EGABren Batzorde Iraunkorrak egindako bilerak
   - Euskadiko EGABren lan-batzordeek egindako bilerak

II. EUSKADIKO EGABren LEGEAN EZARRITAKO EGINKIZUNAK ........................ 39

1. Aholkularitza-jarduera ........................ 41
2. EAEko Memoria Sozioekonomikoa ........................ 46
3. Ekimen propioa ........................ 48
   - Ekimen propioaren bidez egindako azterlanak
   - Tribunak eta konferentziak

III. ERAKUNDEEN JARDUERA ETA AGERRALDIAK ........................ 59

1. Erakundearen jarduera ........................ 61
2. Agerraldiak ........................ 67

IV. JARDUERA EUROPAKO LANKIDETZAREN ESPARRUAN ........................ 71

1. Aldebiko Lankidetza Akitaniako CESRrekin ........................ 73
2. Lankidetza Esparru Atlantikoan ........................ 75
3. Lankidetza Europako bestelako Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde batzuekin ........................ 79

V. GIZA BALIABIDEEN ETA BALIABIDE MATERIALEN KUDEAKETA ........................ 81

1. 2010eko aurrekontua ........................ 83
2. Batzordearen langileak ........................ 84

VI. KOMUNIKAZIOA, DOKUMENTAZIOA ETA ARGITALPENAK ........................ 85

1. Komunikazioa ........................ 87
   - Buletinak
   - Eguneroko prentsaren laburpena
   - Prentsaren urteko txostena
   - EGABren jarduera hedabideetan.
   - Webgunea
   - Artxibo bisuala
2. Dokumentazioa ........................ 95
3. Argitalpenak ........................ 95

VII. EUSKADIKO EGABren LEGERIA ........................ 97

# Aurkezpena

# EGAB-REN JARDUERA 2010. URTEAN

2010. urtean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Lege substantiboaren arabera aldatu zen. Aldaketa horrek, halaber, ez du izan eraginik batzordeen nahiz lantaldeen funtzionamendu arruntaren gain. Izan ere, prozesu-fasean murgildutako ekimen propioaren bidez abian jarritako lanen lekukoaz jabetu dira, eta aldi berean, aholkularitza-alderdian jarduera sakona garatu dute. Zalantzarik gabe, hori erdiesteko ezinbestekoa izan da Gobernuak arauketaren eraketan parte hartzea, batez ere, 2. seihilekoan.

Presidenteak eta Idazkari Nagusiak Lehendakariarekin eta Sailburu ezberdinekin derrigorrez harremanetan jarri ostean, EGAB osatzen duten erakunde desberdinekin izandako bileretan sortutako hobekuntza-alderdien berri eman ahal izateko, aholkularitza-jardueran aurrerakuntza gertatu dela nabarmendu behar da, bai sail ezberdinek bidalitako arauketa-proiektuen igorpenari dagokionez, bai EGABek arauz zehaztutako epeetan emandako erantzunei dagokionez.

Horrenbestez, EGABek arauzko 15 irizpen igorri ditu, eta beraz, EGABren 25 urteko ibilbidean eskuratutako irizpen-kopuru handiena izan da. Gisa berean, sail ezberdinen artean komunikazio handia dago, eta hori proiektu ezberdinak zuzenean azaltzeko agerraldietan islatuta geratu da. Ondorenez, EGABren lan-batzordeentzat balio erantsia sorraraziko du arauak aztertu eta irizpenak igortzeko unean. Hala ere, dena ez da joan bide onetik gai horren inguruan. Batzorde Iraunkorrak kexa formala

aurkeztu behar izan du EGABri dekretu bat ez igortzeagatik. Izan ere, horren garrantzia dela medio, hori Organo horrek ebatzi beharko zukeen.

Ekimen Propioaren bidez abian jarritako lanen eremuan eragin eta gaurkotasun handiko hiru proiektu jorratu dira, eta horiek 2011. urtean plazaratuko dira. “Ekonomiaren eta Gizartearen eragina EAEn aurreikusitako demografiaren bilakaerari begira”, “Energia berriztagarrien garapena Euskal Autonomia Erkidegoan”, eta “EAEko gizarte- eta ekonomia-jardueraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena".

Memoria Sozioekonomikoa EGABren Osoko bilkuran urriaren 27an onetsi eta Eusko Legebiltzarraren Lehendakaritzan azaroaren 2an aurkeztu zen. Horren ostean, prentsaurrekoa eskaini zen. Memoria egiteko epea 2011. urtera aurreratzeko aukera txosten hori egiteko Batzorde arduradunak bere gain hartutako erronka izan da.

Azkenik, kanpo-jarduerari eutsi egin zaio, dela RTAri (Nazioz gaindiko Sare Atlantikoa) egindako ekarpenari esker, dela Akitaniako CESR batzordeko adiskideekin egindako aldebiko bilerei esker, garraioaren mundura zuzenduta daudenak, bederen.

RTAren eremuan "Itsasoko Energia Berriztagarri”ei buruz egindako azterlana nabarmendu behar da. Hain zuzen ere, azterlan hori Bruselan Europako Parlamentuan aurkeztu zen, eta bertan hirurogei pertsonek esku hartu zuten, horien artean, Europako Batzordearen ordezkariek, bereziki, DG Marekoek, bai eta Espainiako Estatuaren parlamentariek eta bestelako pertsona ospetsuek ere.

Horrez gain, RTAk estrategia atlantikoari begira ere ekarpen esanguratsua egin du, Europako Batzordeak esparru atlantikoaren eragileei egindako eskabideari erantzun eta Europaren eta Lankidetzaren ikuspegitik modu egokienean aurre egin beharreko Atlantikoaren erronka zehatzei buruzko ikuspuntuak igorrita.

Beraz, urtea orekatua izan da EGABek garatutako jarduera ezberdinei dagokienez.

JUAN Mª OTAEGUI MURUA
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Presidentea

# Ziurtagiria

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudiaren 14 b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Osoko Bilkurak, beste eginkizun batzuen artean, Jardueren Urteko Txostena onesteko eskumena du.

Arauzko aurreikuspen hori bete ahal izateko, 2010eko Jardueren Txostena egin da, eta horrenbestez ondokoa

# ZIURTATU DUT

**Lehenengo**, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Osoko Bilkurak, 2011ko otsailaren 28ko ez-ohizko bileran besteak beste, akordio hau erabaki duela: "Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2010eko Jardueren Txostena onestea"

**Bigarrena**, argitalpen horretan aipatutako akordioan Batzordearen Osoko Bilkuran onetsitako Txostenaren edukia oso-osorik jaso dela.

Eta, ondore egokiak izan ditzan, agiri hau Bilbon 2011ko otsailaren 28an sinatu dut.

**FRANCISCO JOSÉ HUIDOBRO BURGOS**
Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeko Idazkari Nagusia

# I. KAPITULUA

# Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

# 1. Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea

## EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEEN HISTORIA

Gaur egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen jatorria lehenengo mundu-gerra amaitu eta hurrengo urteetan kokatuta dago. Bada, 1919. urtean Lanaren Nazioarteko Bureau nazioarteko batzar gisa sortu zen, eta bertan gobernuek, langileek nahiz enpresariek esku hartuko dute guztiek batera lan-baldintzak hobetuko dituen nazioarteko legeria sortzeko xedearekin.

Une horretatik aurrera, Europan lehenengo hitzarmen-tresnak agertzen hasi ziren, gaur egungo Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen aurrekariak, hain zuzen. Lehenengo erakundea Frantzian 1925. urtean sortu zen, eta ostean, Europako beste herrialde batzuetan antzeko organoak sortu dira, bereziki, II. Mundu Gerra amaitu ondoren.

Europako Ekonomia Erkidegoak, bere organo gorenen artean, Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea sortu du. Esan beharra dago horiek guztiek bat egiten dutela izaerari eta eginkizunei dagokienez: organo aholku-emaileak dira, eta horien xedea gizarte- eta ekonomia-arloko ordezkariek gobernuen politikan izan beharreko esku-hartzea ahalbidetzea da, eta aldi berean, horien arteko elkarrizketa eta lankidetza ere ahalbidetuko dituzte.

Era berean, Batzordeak ez du jarrera pasiboa, ezpada ekimen propioa du kasuan kasuko Gobernuek eta Legebiltzarrak kontuan hartu beharreko iradokizunak nahiz ebazpenak planteatzeko. Organo aholku-emailea den aldetik, Eusko Jaurlaritzarengandik eta Legebiltzarrarengandik autonomoa eta independentea da, eta horren txostenak, lotesleak ez izan arren, kasu askotan aginduzkoak dira, eta kasu guztietan, aintzat hartu beharreko iritzi kualifikatua ordezkatzen dute.

## EUSKADIKO EGAB. SORRERA ETA IZAERA

Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea Gobernuaren eta Legebiltzarraren zerbitzura lan egiten duen organo aholku-emailea da, eta horren xedea ekonomia- eta gizarte-interes ezberdinetako partaidetza Euskal herriko politika ekonomikoan eraginkorra izatea da.

1984. urtean[1] Legearen bidez sortuta, gaur egun Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ekainaren 27ko 9/1997 Legean nahiz 1997ko abenduaren 18ko Osoko Bilkuraren Akordioaren bidez onetsitako Funtzionamenduari buruzko Araudian ezarritakoaren ariora arautzen da.

---

[1] *Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzko azaroaren 15eko 4/1985 Legearen bidez sortu zen, ostean, ekainaren 30eko 15/1994 Legearen bidez aldatutakoa, eta biak gaur egun indarrean dagoen Legearen bidez baliogabetuta daude.*

Batzordeak nortasun juridiko propioa du, betiere Autonomia Erkidegoaren Administrazioarenaz bestekoa, erabateko gaitasunarekin eta independentziarekin Legeak horri atxikitako eginkizunak bete ahal izateko.

Ekonomia- eta finantza-autonomiaren printzipioaren mende, Batzordeak aurrekontua onetsi eta betearazten du, Euskadiko Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorretan atxikitako zenbatekoekin finantzatuta.

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen egoitza Bilbon kokatuta dago, eta bertan organoen bilerak egiten dira.

## BERE EGINKIZUNAK

- Ekonomia- eta gizarte-politikarekin zerikusia duten lege-proiektuei buruzko informazioa aginduz ematea, autonomia-erkidegoaren Aurrekontu Orokorrei buruzko Legea izan ezik.
- Gobernuaren ustez garrantzitsuak diren ekonomia- eta gizarte-politikarekin zerikusia duten proiektuei buruzko informazioa aginduz ematea.
- Gobernuari bere eskumeneko gaiei buruzko proposamenak egitea.
- Ekimen propioaren bidez edo Gobernuak hala eskatuta, irizpenak, ebazpenak edo txostenak egitea, aurreko ataletan ezarritako eremuei buruz.
- Legebiltzarrak egindako kontsultei erantzutea.
- Gobernuak egindako autonomia-erkidegoaren sektore publikoaren jarduera ekonomikoari buruzko plangintzan parte hartzea.
- Gobernuari eta Legebiltzarrari urtero EAEren ekonomia- eta gizarte-gaietarako egoerari buruzko oharrak azaltzen dituen memoria egin eta helaraztea.

## NORK OSATZEN DU?

Batzordearen eraketan hogeita hamabi pertsona daude, modu honetan bereizita:

- Zortzi batzordekide, sindikatuen erakunde eta konfederazio garrantzitsuenen ordezkari gisa.
- Zortzi batzordekide, enpresen konfederazioen ordezkari gisa.
- Zortzi batzordekide, ondokoen ordezkari gisa: Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganbera; Aurrezki Kutxak eta Finantza Erakundeak; Kooperatibak; Laneko Sozietate Anonimoak; Arrantzaren Erakundeak; Nekazaritzaren Erakundeak; Kontsumitzaileen Erakundeak eta Euskal Herriko Unibertsitatea.
- Zortzi aditu, betiere prestakuntza, esperientzia eta independentzia entzutetsuarekin.

Batzordeko kideak lau urtetik behin izendatzen dira, horiek berriro hautatzeko aukerari kalterik egin gabe.

Egitura organikoaren kasuan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Kide anitzeko organoak hauek dira: Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta Lan-batzordeak.

Osoko bilkura, batzordekide guztiekin osatutakoa, Batzordearen erabakiak hartu eta borondatea eratzeko gorengo organoa da. Beste eskumen batzuen artean, ondokoak egikaritzen ditu: Lehendakariari Presidentearen lanpostua bete behar duen pertsona proposatzea, Idazkari Nagusia izendatzea, eta lan-batzordeak sortu eta ezabatzea, bai eta erakundearen aurrekontuak, urteko memoria sozioekonomikoa eta jardueren memoria, batzorde ezberdinek igorritako irizpenen proiektuak, ebazpenak eta memoriak onestea.

Batzordean, orobat, Pertsona bakarreko bi organo daude: Presidentea eta Idazkari Nagusia.

Euskadiko EGABren Lehendakaritza eta Idazkaritza Nagusia lau urtetik behin aldatzen dira, betiere A), B) eta C) Taldeetan zehaztutako pertsonak kontuan izanda.

## EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN BERRIZTATZEA 2010ean

2009. urtean, 2005ean abian jarritako Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea osatzen duten kideen lau urteko agintaldia amaitu zen.

Ondorenez, eta Funtzionamenduaren Legean eta Araudian ezarritakoarekin bat etorrita, Batzordea berriztatzeko prozesua abian jarri zen, A), B) eta C) Taldeak osatzen dituzten erakundeek ordezkariak izendatuta.

Lehenengo fase horren amaieran, Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea osatzen duten pertsonen kargua uztea eta izendapena argitaratu zen, Lehendakariaren abenduaren 29ko 26/2009 Dekretuaren bidez.

2010eko otsailaren 17an Batzordea Berriztatzeko Aurretiazko Bilera egin zen, eta bertan A), B) eta C) Taldeetako batzordekide berriek kargua hartu zuten. Gisa bertsuan, D) Adituak taldeko kideen izendapenen bozketa egin eta izendapenak onetsi ziren. Hain justu ere, izendapena Lehendakariaren 1/2010 Dekretuaren bidez egin zen.

Berriztatzea osatu ahal izateko, 2010eko apirilaren 14an Batzorde berriaren Lehenengo Osoko Bilkura egin zen. Bertan, hurrengo lau urteetarako Presidente gisa Juan Mª Otaegui Murua jauna eta Idazkari Nagusi gisa José Huidobro Burgos jauna izendatu ziren.

Presidentearen izendapena Lehendakariak apirilaren 26ko 7/2010 Dekretuaren bidez formalizatu eta 2010eko maiatzaren 1ko Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu zuen.

# 2. Euskadiko EGABren organoen eta lan-batzordeen eraketa 2010ean

## OSOKO BILKURA

### PRESIDENTEA:

Juan Mª OTAEGUI MURUA

### IDAZKARI NAGUSIA:

Francisco José HUIDOBRO BURGOS

### A TALDEA. Sindikatuen Konfederazioen eta Erakundeen ordezkari gisa:

#### Euskadiko Langile Komisioak izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Eduardo GARCÍA ELOSUA | Antxon TOMASENA ALZURI |
| Jaime GÓMEZ DEVESA | Jone ROBLEDO ZAPATERO |
| Felisa PIEDRA GAO | Cruz VICENTE PERALTA |
| Arantza MARTÍNEZ TOBALINA | Santiago MARTÍNEZ PÉREZ |
| Javier LÓPEZ IRISARRI | |

#### Euskadiko UGT Sindikatuak izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Maribel BALLESTEROS MARTÍNEZ | Raúl ARZA VÉLEZ |
| Emilia MÁLAGA PÉREZ | Pedro MARQUINA MARTÍNEZ |
| Antonio Manuel RÍOS LÓPEZ | Alberto ELOSÚA ALVARADO |

### B TALDEA. Euskadiko Enpresen Konfederazioaren (Confebask) ordezkari gisa:

#### Izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Carlos PEREDA MARTÍNEZ DE MUSITU | Eduardo ARÉCHAGA CILLERUELO |
| Francisco Javier AZPIAZU LASUEN | Fernando RAPOSO BANDE |
| Fco. Javier SASIGAIN SÁENZ DE BURUAGA | Jon BILBAO SARALEGUI |
| Jaime FERNÁNDEZ ALCEDO | Ana GARCÍA POLANCO |
| Raquel ECENARRO DEL RÍO | Juan Ramón APEZETXEA ESCUDERO |
| Manuel GUERRERO IGEA | José Miguel AYERZA MENDIBURU |
| Aitor OTAOLA DÍAZ DE ALDA | Ignacio SÁENZ DE GORBEA |
| José Guillermo ZUBIA GUINEA | Juan UGARTE AGUIRREZABAL |

| C TALDEA. Autonomia-Erkidegoaren sektore, erakunde eta elkarte bakoitzaren ordezkari gisa: | |
|---|---|
| **Merkataritza, Industria eta Nabigazio Ganberek izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrrak** | **Ordezkoak** |
| Juan Luis MARTÍNEZ ORDORICA | Izaskun ASTONDOA SARRIA[2] |
| **Aurrezki Kutxek eta Finantza Erakundeek izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
| Pedro MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO | Rafael ARANGUREN ILARDIA |
| **Kooperatibek izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
| Francisco Javier SANZ SANTAOLALLA | Joseba ARDANZA BILLELABEITIA |
| **Laneko Sozietate Anonimoek izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
| Olatz JAUREGIZAR UGARTE | Javier MUÑECAS HERRERAS |
| **Arrantzako Erakundeek izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
| Luis Francisco MARÍN ANDRÉS | Aurelio BILBAO BARANDICA |
| **Nekazaritzako Erakundeek izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
| Unzalu SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA | Xabier IRAOLA AGUIRREZABALA |
| **Kontsumitzaileen Erakundeek izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
| Koldo NABASKUES SIMÓN | Alejandro MARTÍNEZ BERRIOTXOA |
| **Euskal Herriko Unibertsitateak izendatutako pertsonak** | |
| **Titularrak** | **Ordezkoak** |
| Mikel DE LA FUENTE LAVÍN | Sylvia GAY HERRERO |

| D TALDEA. Aditu gisa izendatutako pertsonak: |
|---|
| **Izendatutako pertsonak:** |
| Roberto BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA<br>Pedro Luis USTARROZ MOLERES<br>Carlos TREVILLA ACEBO<br>Rafael PUNTONET DEL RÍO<br>Felicísimo AYASTUY SÁENZ<br>Ignacio BARRENECHEA GONZÁLEZ<br>Aitor BENGOETXEA ALKORTA<br>Inmaculada GALLASTEGUI ZULAICA |

[2] *Amaia ATUTXA ATUTXA andrearen ordez, Lehendakariaren maiatzaren 28ko 10/2010 Dekretua*

# BATZORDE IRAUNKORRA

## PRESIDENTEA:

Juan Mª OTAEGUI MURUA

## IDAZKARI NAGUSIA:

Francisco José HUIDOBRO BURGOS

## A TALDEA. Sindikatuen Konfederazioek eta Erakundeek izendatutako pertsonak:

**Titularrak**
Eduardo GARCÍA ELOSUA
Felisa PIEDRA GAO
Maribel BALLESTEROS MARTÍNEZ
Emilia MÁLAGA PÉREZ

**Ordezkoak**
Javier LÓPEZ IRISARRI
Arantza MARTÍNEZ TOBALINA
Raúl ARZA VÉLEZ
Antonio Manuel RÍOS LÓPEZ

## B TALDEA. Confebask-ek izendatutako pertsonak:

**Titularrak**
Jaime FERNÁNDEZ ALCEDO
Jon BILBAO SARALEGUI
Carlos PEREDA MARTÍNEZ DE MUSITU
Eduardo ARÉCHAGA CILLERUELO

**Ordezkoak**
Aitor OTAOLA DÍAZ DE ALDA

## C TALDEA. Autonomia-Erkidegoaren sektore, erakunde eta elkarte bakoitzaren ordezkari gisa:

**Titularrak**
Francisco Javier SANZ SANTAOLALLA
Pedro MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO
Juan Luis MARTÍNEZ ORDORICA
Mikel DE LA FUENTE LAVÍN

**Ordezkoak**
Unzalu SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA
Luis Francisco MARÍN ANDRÉS
Olatz JAUREGIZAR UGARTE
Koldo NABASKUES SIMÓN

## D TALDEA. Adituak:

**Titularrak**
Felicísimo AYASTUY SÁENZ
Roberto BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA
Rafael PUNTONET DEL RÍO
Pedro Luis USTARROZ MOLERES

# GARAPEN EKONOMIKOAREN AZTERKETARAKO BATZORDEA

## PRESIDENTEA:

Batzordearen bilera bakoitzean izendatzen da

## A TALDEA. Sindikatuen Konfederazioek eta Erakundeek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Antxon TOMASENA ALZURI | Jaime GÓMEZ DEVESA |
| Gregorio MARTÍN BENITO | Arantza MARTÍNEZ TOBALINA |
| Maribel BALLESTEROS MARTÍNEZ | Raúl ARZA VÉLEZ |
| Antonio Manuel RÍOS LÓPEZ | Alberto ELOSUA ALVARADO |

## B TALDEA. Confebask-ek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Eduardo ARÉCHAGA CILLERUELO | Fco Javier SASIGAIN SÁENZ DE BURUAGA |
| Jon BILBAO SARALEGUI | Ana GARCÍA POLANCO |
| Aitor OTAOLA DÍAZ DE ALDA | |
| Carlos PEREDA MARTÍNEZ DE MUSITU | |

## C TALDEA. Taldea osatzen duten Autonomia Erkidegoko Sektoreek, Erakundeek eta Elkarteek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
|---|---|
| Pedro MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO | Rafael ARANGUREN ILARDIA |
| Olatz JAUREGIZAR UGARTE | Javier MUÑECAS HERRERAS |
| Juan Luis MARTÍNEZ ORDORICA | Izaskun ASTONDOA SARRIA |
| Koldo NABASKUES SIMÓN | Alejandro MARTÍNEZ BERRIOTXOA |

## D TALDEA. Adituak:

**Titularrak**

Roberto BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA
Inmaculada GALLASTEGUI ZULAICA
Rafael PUNTONET DEL RÍO
Carlos TREVILLA ACEBO

# GIZARTEAREN GARAPENAREN AZTERKETARAKO BATZORDEA

## PRESIDENTEA:

Batzordearen bilera bakoitzean izendatzen da

## A TALDEA. Sindikatuen Konfederazioek eta Erakundeek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| Felisa PIEDRA GAO | Jone ROBLEDO ZAPATERO |
| Santiago MARTÍNEZ PÉREZ | Cruz VICENTE PERALTA |
| Emilia MÁLAGA PÉREZ | Maribel BALLESTEROS MARTÍNEZ |
| Alberto ELOSUA ALVARADO | Pedro MARQUINA MARTÍNEZ |

## B TALDEA. Confebask-ek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| Eduardo ARÉCHAGA CILLERUELO | Jaime FERNÁNDEZ ALCEDO |
| Jon BILBAO SARALEGUI | |
| Carlos PEREDA MARTÍNEZ DE MUSITU | |

## C TALDEA. Taldea osatzen duten Autonomia Erkidegoko Sektoreek, Erakundeek eta Elkarteek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| Luis Francisco MARÍN ANDRÉS | Aurelio BILBAO BARANDICA |
| Unzalu SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA | Xabier IRAOLA AGUIRREZABALA |
| Francisco Javier SANZ SANTAOLALLA | Joseba ARDANZA BILLELABEITIA |
| Mikel DE LA FUENTE LAVÍN | Sylvia GAY HERRERO |

## D TALDEA. Adituak:

**Titularrak**

Aitor BENGOETXEA ALKORTA
Rafael PUNTONET DEL RÍO
Pedro Luis USTARROZ MOLERES

# MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEA

## PRESIDENTEA:

Batzordearen bilera bakoitzean izendatzen da

## A TALDEA. Sindikatuen Konfederazioek eta Erakundeek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| Antxon TOMASENA ALZURI | Arantza MARTÍNEZ TOBALINA |
| Eduardo GARCÍA ELOSUA | Cruz VICENTE PERALTA |
| Maribel BALLESTEROS MARTÍNEZ | Antonio Manuel RÍOS LÓPEZ |
| Raúl ARZA VÉLEZ | Emilia MÁLAGA PÉREZ |

## B TALDEA. Confebask-ek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| Eduardo ARÉCHAGA CILLERUELO | Fco Javier SASIGAIN SÁENZ DE BURUAGA |
| Jaime FERNÁNDEZ ALCEDO | Aitor OTAOLA DÍAZ DE ALDA |

## C TALDEA. Taldea osatzen duten Autonomia Erkidegoko Sektoreek, Erakundeek eta Elkarteek izendatutako pertsonak:

| Titularrak | Ordezkoak |
| --- | --- |
| Rafael ARANGUREN ILARDIA | Pedro MTNEZ. DE ALEGRÍA PINEDO |
| Javier MUÑECAS HERRERAS | Olatz JAUREGIZAR UGARTE |
| Sylvia GAY HERRERO | Mikel DE LA FUENTE LAVÍN |
| Xabier IRAOLA AGUIRREZABALA | Unzalu SALTERAIN BASAGUTXIBEASKOA |

## D TALDEA. Adituak:

**Titularrak**
Felicísimo AYASTUY SÁENZ
Ignacio BARRENECHEA GONZÁLEZ
Aitor BENGOETXEA ALKORTA
Carlos TREVILLA ACEBO

---

**Batzordearen Idazkari Teknikoa:** Arantza UNZURRUNZAGA ESTEFANÍA

# AKITANIAREKIN LANKIDETZAN ARITZEKO LANTALDEA

## PRESIDENTEA:

Juan Mª OTAEGUI MURUA

## A TALDEA. Sindikatuen Konfederazioek eta Erakundeek izendatutako pertsonak:

**Titularrak**
Jaime GÓMEZ DEVESA
Pedro MARQUINA MARTÍNEZ
Raúl ARZA VÉLEZ

## B TALDEA. Confebask-ek izendatutako pertsonak:

**Titularrak**
Felicísimo AYASTUY SÁENZ
Jaime FERNÁNDEZ ALCEDO
Carlos PEREDA MARTÍNEZ DE MUSITU

## C TALDEA. Taldea osatzen duten Autonomia Erkidegoko Sektoreek, Erakundeek eta Elkarteek izendatutako pertsonak:

**Titularrak**
Mikel DE LA FUENTE LAVÍN
Luis Francisco MARÍN ANDRÉS
Koldo NABASKUES SIMÓN

## D TALDEA. Adituak:

**Titularrak**
Roberto BERMEJO GÓMEZ DE SEGURA
Rafael PUNTONET DEL RÍO

---

**Batzordearen Idazkari Teknikoa:** Arantza LÓPEZ DE MUNAIN ZULUETA

# 3. Euskadiko EGABren lan-organoek eta -batzordeek 2010ean egindako bileren laburpena

## EUSKADIKO EGABren OSOKO BILKURAK EGINDAKO BILERAK

### 2010eko otsailak 17. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2009ko abenduaren 21ean egindako Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena.
- Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren estatutupeko langile gisa funtzionarioak eta langileak integratzeko prozedura ezarri duen Dekretu Proiektuari buruzko 1/10 Irizpenaren onespena.
- Diru-Sarreren Bermerako Errenta arautu duen Dekretu Proiektuari buruzko 2/10 Irizpena, Euskal Herriko Unibertsitatearen ordezkariak emandako boto partikularrarekin.

### 2010eko otsailak 17. Batzordea Berriztatu baino lehenagoko bilera

- Batzordearen A), B) eta C) Taldeetako kide berrien kargu-hartzea.
- D) Adituak Taldeko kideen izendapenen onespena.

### 2010eko martxoak 5. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2009ko otsailaren 17ko Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena.
- 2009ko Jardueren Txostenaren onespena.

### 2010eko apirilak 14. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2010eko martxoaren 5eko Bilkuran eta 2010eko otsailaren 17ko Batzordea Berriztatzeko Aurretiazko Bileran egindako akten onespena.
- Euskal Herriko Erakundeen Publizitate eta Komunikazio Legeari buruzko 3/10 Irizpenaren onespena.

### 2010eko apirilak 14. Batzorde Berriaren Lehenengo Bilera

- D) Adituak taldeko kide berrien kargu-hartzea.
- Juan Mª Otaegui Murua Presidente izendatzea C) Taldeak hala proposatuta. Legearen 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera, akordio hori Lehendakariari helarazi zitzaion, izendapena egin ahal izateko.
- Francisco José Huidobro Burgos jn. Idazkari Nagusi izendatzeko akordioa.
- Batzorde Iraunkorreko kideen, titularren eta ordezkoen izendapena.
- Batzordearen gainerako batzordeetako kideen, titularren eta ordezkoen taldeen komunikazioa.

### 2010eko apirilak 21. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- Batzordeak hala eskatuta, eta Euskadiko EGABren 9/97 Legearen 3.3 artikuluan ezarritakoa bete ahal izateko, Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasuneko Carlos Aguirre Sailburu jaunak esku hartu du.

### 2010eko maiatzak 6. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- Familien Euskal Behatokiaren sorrerari buruzko Dekretuaren 4/10 Irizpenaren eta ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzen emakida arautu duen Dekretuaren 5/10 Irizpenaren onespena
- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Bernabé Unda Sailburu jaunak esku hartu du.

### 2010eko ekainak 25. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- Apirilaren 14an egindako Batzorde berriaren lehenengo bileran, eta 2010eko apirilaren 21ean eta 2010eko maiatzaren 6an egindako Osoko Bilkuretan jasotako akten onespena.
- Bidaia Agentzien antolamendurako Dekretu Proiektuari buruzko 6/10 Irizpenaren onespena.
- Diru-Sarreren Bermerako eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatu duen Legearen Aurreproiektuari buruzko 7/10 Irizpenaren onespena.
- 2009ko ekitaldiko Aurrekontuaren Likidazioaren eta Auditoretza Txostenaren onespena.



### 2010eko uztailak 19. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2010eko apirilaren 14ko eta 2010eko ekainaren 25eko Osoko Bilkuretan egindako akten onespena.
- Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen Aurreproiektuaren 8/10 Irizpenaren onespena.

### 2010eko uztailak 30. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2010eko uztailaren 19ko Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena.
- Gizarte-larrialdietarako diru-laguntzak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzko 9/10 Irizpenaren onespena.
- Gizarteratze aktiborako hitzarmenen Dekretu Proiektuaren 10/10 Irizpenaren onespena

### 2010eko urriak 8. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2010eko uztailaren 30eko Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena.
- Drogazaletasunaren prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketaren Lege Proiektuari buruzko 11/10 Irizpenaren onespena.

### 2010eko urriak 27. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2010eko urriaren 8ko Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena.
- EAEren 2009ko Memoria Sozioekonomikoaren onespena.

### 2010eko azaroak 24. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2010eko urriaren 27ko Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena
- Klima-aldaketari aurre egiteko Euskal Legearen Aurreproiektuari buruzko 12/10 Irizpenaren eta barne-merkatuko zerbitzuekin zerikusia duen Europako Parlamentuaren eta Batzordearen abenduaren 12ko 2006/123/EB zuzentaraura egokitzeko lege ezberdinak aldatzeko Legearen Aurreproiektuari buruzko 13/10 Irizpenaren onespena.

### 2010eko abenduak 9. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Bernabé Unda Sailburuaren esku-hartzea.
- 2010eko azaroaren 24ko Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena.
- Gizarte eta Osasun Arretarako Euskal Kontseilua arautu duen Dekretu Proiektuari buruzko 14/10 Irizpenaren eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren Dekretu Proiektuari buruzko 15/10 Irizpenaren onespena.

### 2010eko abenduak 22. Ez-ohiko Osoko Bilkura

- 2010eko abenduaren 9ko Osoko Bilkuran egindako aktaren onespena.
- 2011rako Euskadiko EGABren Aurrekontuaren onespena.
- EAEko Memoria Sozioekonomikoa egiteko Presidente gisa Inmaculada Gallastegui andrea izendatzea.

## EUSKADIKO EGABren BATZORDE IRAUNKORRAK EGINDAKO BILERAK

### 2010eko otsailak 3

- 2009ko 11ko Batzorde Iraunkorraren bileran egindako aktaren onespena.
- Ekimen propioaren bidez abian jarritako "Euskadiko energia berriztagarrien ahalmena" eta "EAEko gizarte- eta ekonomia-beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena" azterlanak egiteko lanen esleipena onetsi da.
- 2010eko otsailaren 17rako osoko bilkura ez-ohikorako deialdia egiteko akordioa hartu da
- Euskadiko EGABren Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Negoziazio Kolektiboaren Mahai Orokorraren Akordioa aplikatzeko txostenaren eskabideari buruzko akordioa.
- EGABren inprimaketa-lanen esleipenerako oinarrien onespena.
- Batzordea berriztatzeko prozesuari buruzko informazioa.

### 2010eko otsailak 24

- 2010eko otsailaren 3ko Batzorde Iraunkorraren bileran egindako aktaren onespena.
- Jardueren Txostenari buruzko proiektuaren onespena.
- Legebiltzarrak eta Gobernuak EGABri kontsultatu gabeko 2009ko arau onetsiei buruzko txostena egitea erabaki da, Batzorde Iraunkorrean aurkeztu eta behar bezala ebaluatu dadin.
- Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko Javier Ruiz Sailburuordearen esku-hartzea.



### 2010eko martxoak 17

- 2010eko otsailaren 24ko Batzorde Iraunkorraren bileran egindako aktaren onespena.
- 2010eko apirilaren 14rako ohiko osoko bilkurarako deialdia egiteko akordioa hartu da
- "RTAren Itsasoko Energia Berriztagarriei buruzko Azterlanaren ondorioak eta gomendioak" azterlanaren onespena.

- Presidentearen informazioa argitalpenen esleipenari, merkataritza-kontratuaren luzapenari eta Industriako Xabier Garmedia Sailburuorde jaunarekin egindako bilerari buruz.
- Bileretan esku hartzeagatik emandako ordainsariei buruzko akordioa.

### 2010eko martxoak 26

- 2010eko martxoaren 17ko Batzorde Iraunkorraren bileran egindako aktaren onespena.
- EGABren langileei buruzko egoeraren txostena.
- Euskadiko EGABren aholkularitza-jardueraren txostena, Gobernuak onetsitako arauei buruzkoa.
- 2010eko apirilaren 21ean osoko bilkura ez-ohikoa egingo da Bilboko Euskalduna Jauregian, eta eguneko gai-zerrendan Ekonomia eta Ogasuneko Carlos Aguirre Sailburuak bakarrik esku hartuta. Jarraian, EGABren Tribuna egingo da, eta hizlaria Aguirre jauna izango da.

### 2010eko apirilak 28

- 2010eko martxoaren 26ko Batzorde Iraunkorraren bileran egindako aktaren onespena.
- Apirilaren 6an EGABren ez-ohiko osoko bilkura egiteko deialdia egin da. Bilera horretan Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Bernabé Unda Sailburu jaunak esku hartuko du.

### 2010eko ekainak 18

- 2010eko apirilaren 28ko Batzorde Iraunkorrean egindako aktaren onespena.
- 2009ko Aurrekontuaren Likidazioaren eta 2009ko Auditoretza Txostenaren onespena.
- Akitaniarekin lankidetzan aritzeko lantaldearen eraketa onetsi eta kideak izendatu dira.
- Europaz Gaindiko Garraio Sareen -EGAS- berrikuspenaren inguruko lanak jorratuko dira.
- Lan-batzordeen Presidente iraunkorren izendapenari buruzko gogoeta.
- Ekainaren 25eko EGABren ez-ohiko osoko bilkurarako deialdia egin da.
- Eusko Jaurlaritzak onetsi eta Batzordeari kontsultatu gabeko arauketa-proiektuei buruzko hileko txostenak egiteko onespena eman da.

### 2010eko uztailak 14

- Ez-ohiko osoko bilkurarako deialdia. Bilera uztailaren 19an egingo da.
- Presidenteak Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko Javier Ruiz Sailburuorde jaunak egindako bisitaren berri eman du.

### 2010ko uztailak 19

- Ekainaren 18ko Batzorde Iraunkorraren bileran eta uztailaren 14koan egindako akten onespena.

- Merkataritza-kontratuaren luzapena.
- EGABrekiko ordainketari buruzko 2/2010 Legearen aplikazioa.
- RTAren Itsasoko Energia Berriztagarrien Azterlanaren onespena.

### 2010eko uztailak 26

- 2010eko uztailaren 14ko eta 19ko Batzorde Iraunkorretan egindako akten onespena
- Uztailaren 30ean ez-ohiko osoko bilkura egiteko erabakia hartu da.

### 2010eko urriak 1

- 2010eko uztailaren 26ko Batzorde Iraunkorrean egindako aktaren onespena.
- Urriaren 8an Osoko Bilkura egiteko erabakia hartu da.

### 2010eko urriak 20

- 2010eko urriaren 1eko Batzorde Iraunkorrean egindako aktaren onespena.
- Osoko bilkurarako deialdia. Urriaren 27ko osoko bilkura egiteko erabakia hartu da.

### 2010eko azaroak 5

- 2010eko urriaren 20ko Batzorde Iraunkorrean egindako aktaren onespena.
- Eguneroko prentsaren laburpena. Formatu berriari buruzko informazioa.
- Lehendakaritzei buruzko gogoeta. Jarraipena.
- Administrazioan Euskadiko EGABren une erabakigarriari buruz egindako kudeaketak.
- 09/30eko aurrekontuaren kontrolari buruzko informazioa, partidak aldatzeko erabakia hartuta.
- Kutxei buruzko Legearen izapidetzaren berri eman da.
- Europako Estrategia Atlantikora egindako RTAren Ekarpenari buruzko agiriaren onespena.

### 2010eko azaroak 17

- 2010eko azaroaren 5eko Batzorde Iraunkorrean egindako aktaren onespena.
- 2010eko azaroaren 24an ez-ohiko osoko bilkura egiteko erabakia hartu da.

### 2010eko abenduak 1

- 2010eko azaroaren 17ko Batzorde Iraunkorrean egindako aktaren onespena.
- Euskadiko EGABren 2011ko Aurrekontuei buruzko Aurreproiektua onetsi da.
- 2010eko abenduaren 9an ez-ohiko osoko bilkura egiteko erabakia hartu da.
- Presidenteak Ekonomia eta Ogasun Saileko Carlos Aguirre Sailburu jaunak egindako kudeaketen berri eman du, Kontseiluaren Osoko Bilkuran esku hartzeko.

### 2010eko abenduak 15

- 2010eko abenduaren 1eko Batzorde Iraunkorrean egindako aktaren onespena.
- 2010eko aurrekontu-kreditua eskualdatzeko onespena.
- Osoko bilkurarako deialdia. 2010eko abenduaren 22ko ez-ohiko osoko bilkura egiteko erabakia hartu da.

## EUSKADIKO EGABren LAN-BATZORDEEK EGINDAKO BILERAK.

### GARAPEN EKONOMIKOAREN AZTERKETARAKO BATZORDEA

#### 2010eko urtarrilak 12

Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren estatutupeko langile gisa funtzionarioak eta langileak integratzeko prozedura ezarri duen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektua eztabaidatu ostean, hori Lan-batzordeak aho batez onetsi du.

"EAEko gizarte- eta ekonomia-egoeraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena"ri buruzko azterlana kontratatzeko lehiaketan aurkeztutako proposatutako Sintesiaren Txostenari buruzko eztabaida. Batzordeari lehiaketan aurkeztutako eskaintzen Sintesiaren Txostena igorri ondoren, Batzordeak Elgoibarko Makina Herramintaren Institutuak aurkeztutako proposamena aukeratzeko erabakia aho batez hartu du.

#### 2010eko martxoak 10

"EAEko gizarte- eta ekonomia-egoeraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena" Ekimen Propioaren Azterlanarekin zerikusia duen lehenengo Agerraldiari dagokionez, Idazkaritza Teknikoak jakinarazi duenez, Cardiffeko (University of Wales) Centre for Advanced Studies in Social Sciences unibertsitatearen Philip Cooke irakaslearekin harremanak abian jarri dira.

Erakundearen Publizitate eta Komunikazio Legearen Aurreproiektuaren Irizpenari buruzko eztabaida. Parte-hartzaile guztiek Zerbitzu Teknikoek idatzitako Irizpenaren Aurreproiektua modu positiboan baloratu dute. Aipatutako agiria, gomendatutako aldaketa batzuekin, aho batez onetsi da.

#### 2010eko maiatzak 5

Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei eman beharreko diru-laguntzak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuaren eztabaida, eta Irizpenaren Proiektu egokia aho batez igorri da hori Osoko Bilkuran jorratzeko.

#### 2010eko ekainak 14

Bidaia agentzien antolamenduari buruzko Dekretu Proiektuaren Irizpenaren Aurreproiektuaren eztabaida, eta Irizpenaren Proiektu egokia aho batez igorri da hori Osoko Bilkuran jorratzeko.

Energia berriztagarriak garatzeko ekimen propioaren bidez egindako azterlanari buruzko lehenengo kapituluak aurkezteko bilera egiteko erabakia hartu da, eta hori uztailaren 8an 10:00etan egingo da.

#### 2010eko uztailak 6

Lehiaren Euskal Agintaritzari buruzko Legearen Aurreproiektuaren Irizpenaren Aurreproiektuari buruzko eztabaida. Batzordeko kideek Aurreproiektuari buruzko ikuspegia azaldu dute, eta esku-hartze ezberdinen ondorioz, Batzordearen Idazkaritzak jakinarazi duenez, agiria adostutako aldaketekin batera igorriko du, eta

alegazioak aurkezteko epea uztailaren 9an 14:00etan ezarri da. Alegaziorik aurkezten ez bada, agiria onetsitzat joko da.

### 2010eko uztailak 8

EAEko Energia Berriztagarrien Garapenerako Azterlanari buruzko lehenengo kapituluen aurkezpena aholkularitza-taldearen kontura, bai eta Batzordeko kideen esku-hartzeen kontura ere.

### 2010eko irailak 20

“EAEko gizarte- eta ekonomia-egoeraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena” azterlanaren I eta II. Kapituluen bateragarritasuna. Esku-hartze ezberdinen ostean, ikuspegi partekatua dagoela antzeman da: “agiriak izan dezakeen norainokoaren inguruko kezka, eta garaiz eta ondorio gisa, azterlanaren xede estrategikotik urruntzea". Batzordearen Idazkaritza Teknikoak aholkularitzari buruz jorratutako alderdiak igortzeko beharrizana dagoela adierazi du, eta Garapen Ekonomikorako Batzordearekin astelehenean (27) bilera egiteko deialdia egin du.

### 2010eko irailak 27

Bilera “EAEko gizarte- eta ekonomia-egoeraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena” EI azterlanari buruzko lanak egiteko aholkularitza arduradunarekin.

### 2010eko urriak 13

Batzordearen eta Philip Cooke irakaslearen arteko bilera, horrek Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean esku hartu ostean.

### 2010eko azaroak 5

Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saileko Ogasun eta Finantza Zerbitzuaren Manuela Escribano Sailburuorde andrearen esku-hartzea. Hain zuzen ere, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Aurreproiektuaren edukia aurkeztu du, EGABek arau horren Irizpena gauzatzeko egin dituen lanak direla medio.

### 2010eko azaroak 8

“EAEko gizarte- eta ekonomia-egoeraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena” EI azterlanaren III. Kapituluaren eztabaida. Batzordeko kideek gai eta akordio nagusiak baloratu ondoren, Batzordearen Idazkaritza Teknikoak aholkularitzari jorratutako alderdiak igorri eta Garapen Ekonomikorako Batzordearekin asteazkenean (17) bilera egiteko beharrizana azpimarratu du.

### 2010eko azaroak 17

Bilera “EAEko gizarte- eta ekonomia-egoeraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapena” EI azterlanari buruzko lanak egiteko aholkularitza arduradunarekin. Batzordearen Idazkaritza Teknikoak jakinarazi duenez gero, aholkularitza-taldeko kideek aurreko bileran egindako Akta dute, eta

horrenbestez, horiek bilera horretan adostutako puntuak azaltzeko erabakia hartu du, betiere Aktan ezarritakoari jarraituta.

### 2010eko azaroak 21

Europako Parlamentuaren eta Batzordearen abenduaren 12ko 2006/123/EB Zuzentaraura egokitzeko Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuaren eztabaida, barne-merkatuko zerbitzuei buruzkoa, eta Irizpen Proiektu egokiaren igorpena.

EAEko Energia Berriztagarrien Garapenerako Ekimen Propioaren Azterlanari buruzko EAEko Potentzial Berriztagarrien kapituluak aurkezteko bilera abenduaren 10ean egiteko erabakia hartu da.

## GIZARTEAREN GARAPENAREN AZTERKETARAKO BATZORDEA

### 2010eko otsailak 1

Etxebizitzaren Prestazio Osagarria arautu duen Dekretuari buruzko lanak amaitutzat jotzeko erabakia hartu da, hori urtarrilaren 12an Gobernu Kontseiluan onetsi ostean, bai eta hori hilabete bereko 18ko EHAAn argitaratzekoa ere. Gisa bertsuan, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailburuari bi alderdien arteko komunikazioa ahalbidetzeko beharrizana igortzeko erabakia hartu da.

Batzorde horretan Diru-Sarreren Bermerako Errenta arautu duen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuaren aurreakordioa erdietsi da. Ostean, posta elektronikoaren bidez, agiri berri bat egin da Ohar Zehatz batzuk berreskuratzeko, eta Ondorioen atalaren testua aldatu da. Amaitzeko, Batzordeak Irizpen Proiektua onetsi da, eta hori Osoko Bilkurari helarazi zaio bertan berretsi dadin.

### 2010eko apirilak 27

Batzordeari "Ekonomiaren eta gizartearen eragina EAEn aurreikusitako demografiaren bilakaerari begira" Ekimen Propioaren Azterlana egiteko lanen funtzionamenduaren berri eman da.

Familia eta Lana bateratzeko Dekretu Proiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuari buruz Gizarte-arloko Batzordeak Irizpen Proiektua igortzeko lanak geldiarazi, Akta hori Presidenteari helarazi eta organo gidariei Gobernuari horren berri emateko eskaera egiteko erabakia hartu du.

Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzeko Dekretu Proiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuari buruzko eztabaida egin eta iritzi batzuk eskualdatu ostean, Batzordeak Irizpenaren Proiektua aho batez onetsi du eta EGABren Batzordeari helarazi dio bertan berretsi dadin.

### 2010eko ekainak 22

"Ekonomiaren eta gizartearen eragina EAEn aurreikusitako demografiaren bilakaerari begira" Ekimen Propioaren Azterlanari buruzko bilera monografikoa egitea proposatu

da, Sailburu ezberdinek egindako ondoz ondoko bidalketak eta aldaketak berrikusteko xedearekin.

Diru-Sarreren Bermerako eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatu duen Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuari buruz, parte-hartzaileek iritzi ezberdinak eskualdatu ondoren, Irizpenaren Aurreproiektuan aldaketa batzuk ezarriko dira. Behin horiek eginda, Batzordeak Irizpenaren Proiektua aho batez onetsi du eta EGABren Batzordeari helarazi dio bertan berretsi dadin.

### 2010eko uztailak 1

"Ekonomiaren eta gizartearen eragina EAEn aurreikusitako demografiaren bilakaerari begira" Ekimen Propioaren Azterlanari buruzko zirriborroa eztabaidatu da. Azterlanaren zirriborroan jasotako edukiaren inguruko iritziak eman ostean, Batzordeak 1-4 arteko kapituluak aho batez onetsi ditu, eta txostenaren gainerako zatia EGABren zerbitzu teknikoek idazteko erabakia hartu du.

### 2010eko uztailak 26

Gizarte Larrialdietarako Diru-laguntzak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuari buruz eztabaidatu eta iritzi ezberdinak eskualdatu ondoren, parte-hartzaileek Irizpenaren Aurreproiektuan zenbait aldaketa egiteko akordioa erdietsi dute, eta behin horiek jasota, Dekretuaren Irizpena aho batez onetsi da.

Gizarteratze Aktiboaren Hitzarmenei buruzko Dekretu Proiektuaren Irizpenaren Aurreproiektuaren eztabaida egin da, eta iritzi ezberdinak eman ondoren, parte-hartzaileek Irizpenaren Aurreproiektuan zenbait aldaketari buruzko akordioa erdietsi dute, eta behin horiek jasota, Dekretuaren Irizpena aho batez onetsi da.

### 2010eko irailak 15

Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren Drogazaletasun Sailaren Celina Pereda Zuzendariaren agerraldia Gizarte Batzordean, drogazaletasunaren prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko Lege Proiektua aurkeztu eta eztabaidatzeko.

### 2010eko irailak 24

Drogazaletasunaren prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko Lege Proiektuaren Irizpenaren Aurreproiektuaren eztabaida; iritzi ezberdinak eskaini ondoren, bertaratuek Irizpen Aurreproiektuan aldaketa batzuk egiteko erabakia hartu dute, eta behin horiek eginda, Irizpen Proiektua aho batez onetsi da.

### 2010eko urriak 20

EGABri edo LHKri, edota bi horiei kontsultatu beharreko gaiei buruzko eztabaida sakona egin ondoren, Batzordeak Euskadiko lanaren Hitzarmen nahiz Akordio Kolektiboen Erregistroaren eta Gordailuaren Proiektuari buruzko Irizpena ez igortzeko erabakia hartu du.

### 2010eko azaroak 11

Herrizaingo Sailaren Administrazio eta Zerbitzu Sailaren Ernesto Martínez de Hidalga Sailburuorde jaunaren agerraldia Gizarte Garapenerako Batzordean, Euskadiko

Segurtasun Publikoaren Antolamendurako Legearen Aurreproiektua aurkeztu eta eztabaidatzeko xedearekin. Orobat, Araubide Juridiko eta Zerbitzu Sailaren Iñaki Calonge Zuzendari jaunak eta Aholkularitza Juridikoaren (abokatua) Eugenio Artetxe buru jaunak esku hartu dute.

### 2010eko azaroak 16

Klima-aldaketari aurre egiteko Euskal Legearen Aurreproiektuari buruzko Irizpena eztabaidatu ondoren, hori onetsi egingo da, baina zerbitzu teknikoei igorritako testuan aldaketa batzuk egingo dira.

### 2010eko azaroak 26

Diru-Sarreren Bermerako Euskal Sistemaren arauketari buruz EGABek egindako aholkularitza-jardueraren jarraipen-txostenari dagokionez, Batzorde horren organo gidariek adostutakoa aintzat hartuta, data horretatik aurrera modu sistematikoan EGABren aholkularitza-jardueraren jarraipen-txostenak egingo direla jakinarazi da. Kasu horretan, Diru-Sarreren Bermerako eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legearen ondoriozko ekimenen multzoa da. Halaber, EGABen izapidetutako zazpi espedienteen artean (Legearena barnean hartuta), txostenean Gobernuak onetsitako bi irizpenen intzidentziari buruzko azterketa jaso da.
Gizarte eta Osasun Arretarako Euskal Kontseiluak arautu duen Dekretuari buruzko Irizpenaren Aurreproiektuari buruz, aldaketa batzuk egin ondoren, Batzordeak Irizpen Proiektua aho batez onetsi du, eta hori EGABren Osoko Bilkurari helaraziko zaio bertan berretsi dadin.

## EAEKO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA EGITEKO BATZORDEA

### 2010eko apirilak 30

Memoria Sozioekonomikoaren 2009ko edizioaren edukia eta egitura onetsi da, bai eta lan-egutegia ere.

### 2010eko ekainak 18

Kapitulu ezberdinei buruzko erabakiak eztabaidatu eta hartu dira, hain zuzen ere, ondoko hauek:

| | |
|---|---|
| I.1.1. Kapitulua | DEMOGRAFIA ETA IMMIGRAZIOA |
| II.4. Kapitulua | GIZARTEAREN EKONOMIA |
| II.6. Kapitulua | PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK |
| III.1.1. Kapitulua | KOLEKTIBO INTERESGARRI ZEHATZEN BIZI-BALDINTZAK: Gazteria |
| III.3.5 Kapitulua | POBREZIA ETA GIZARTE BAZTERKERIA |

### 2010eko uztailak 22

MSE09 egiteko lanen jarraitutasuna. Kapitulu ezberdinei buruzko erabakiak eztabaidatu eta hartu dira, hain zuzen ere, ondoko hauek:

| | |
|---|---|
| **I.4. Kapitulua** | EKOIZPEN AZPIEGITURAK |
| **III.1.2. Kapitulua** | ADINEKOAK |
| **III.6. Kapitulua** | JARDUERA JUDIZIALA |
| **IV. Kapitulua** | SARRERA |
| **IV.4. Kapitulua** | GIZARTE-AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK |
| **VII. Kapitulua** | LABURPENA ETA OHARRAK |

### 2010eko irailak 24

MSE09 egiteko lanen amaiera. Kapitulu ezberdinei buruzko erabakiak eztabaidatu eta hartu dira, hain zuzen ere, ondoko hauek:

| | |
|---|---|
| **III.1.2. Kapitulua** | ADINEKOAK |
| **IV. Kapitulua** | GIZARTEAREN BABESA EAEn |
| **VII. Kapitulua** | LABURPENA ETA OHARRAK |

Batzordeak erabaki duenaren ariora, testua osorik jaso ostean, astebeteko epea irekiko da azken berrikuspena egiteko. Ondoren, eta bilera berri bat egiteko beharrizanik izan gabe, 2009ko Memoria Sozioekonomikoaren proiektua 2010eko urriaren 5ean aho batez onetsi da.

## AKITANIAREKIN LANKIDETZAN ARITZEKO LANTALDEA

### Bilbo, 2010eko urtarrilak 14

Bileraren xedea Akitaniako CESRrekin baterako bilera egitea zen, hain zuzen ere, Bordelen urtarrilaren 21ean eta 22an, programatutako entzunaldien edukiari buruzko informazioa eta dokumentazioa eskainita.

Lanak aurrera eraman eta ondorioen jarraipena egiteko ebazpenak erabaki dira.

### Bilbo, 2010eko apirilak 14

Bileran Akitaniako CESRrekin ekainean egindako topaketan jorratutako edukiak aztertu ziren, garraioaren etorkizun lehenetsita, dela Europaren ikuspegitik, dela Frantziaren nahiz Iberiar Penintsularen arteko trafiko-proiekzioen ikuspegitik. Horrez gain, berehala argitaratuko diren garraio-eremuari buruzko kontsulta-agirien eta Batzorde Iraunkorrak egokitzat jotzen duenean Taldeak jorratu beharrekoen inguruko informazioa emango da.

### Bilbo, 2010eko ekainak 28

Ekaineko bateko bileraren birprogramazioa landu da, hori egiteko data berriak ezarrita, hots, irailak 21 eta 22. Bada, Frantziako hego-ekialdeko trenbide-proiektuei buruzko RFF daturik ageri ez denez gero, Eusko Jaurlaritzako ordezkariei gonbitea egingo zaie EAEko bide- eta trenbide-azpiegituren bilakaera azaltzeko. Gainera, Garraioaren Europaz Gaindiko Sareen politikaren berrikuspen-eremuan Europako Batzordearen Kontsulta Agiri berriari begira garatu beharreko lanak jorratu dira.

### Bilbo, 2010eko uztailak 8

Bileran Euskadiko EGABek RTE-Tren politika berrikusteko Europako Batzordearen kontsulta-agiriari begira egin beharreko ekarpena garatu da. Batzordearen Idazkaritza Teknikoak agiria RTE-Tren berrikuspen-prozesuaren esparruan aurkeztu zuen, bai eta Batzordearen laguntzarako lan-agiria ere. Agiriaren edukietan jasotako ideiei buruzko lehenengo gogoeta egin eta horiek bat egingo dira.

### Bilbo, 2010eko uztailak 21

Bileran horretan, era berean, Euskadiko EGABek RTE-Tren politika berrikusteko Europako Batzordearen kontsulta-agiriari begira ekarpena egiteko ideiak bat egin dira, eta bilera horretan azaldutako ideiei begira EGABek duen jarreraren agiria prestatzeko erabakia hartu da.
Horrez gain, Arku Atlantikoko Batzordeak Europako agiriari egindako ekarpenaren ardatzak aztertuko dira.

### Bilbo, 2010eko irailak 7

Bileran Euskadiko EGABek RTE-Tren politika berrikusteko Kontsulta Agiriari buruzko Euskadiko EGABren jarrera-agiriaren proposamena aztertu zen. Eztabaidan, amaitzeko, jarreraren eta ekarpenaren inguruko akordioa hartu da, eta agiria Akitaniako CESRri helaraziko zaio, horri atxikitzeko -errealitatean gertatzen dena- eta Europako Batzordeari baterako ekarpena igortzeko.

# II. KAPITULUA

# Euskadiko EGABren Legean ezarritako eginkizunak

# 1. Aholkularitza jarduera

## 1/10 IRIZPENA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren estatutupeko langile gisa funtzionarioak eta langileak integratzeko prozedura ezarri duen Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2009ko abenduak 3

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilerak**: 2010eko urtarrilak 12

**Emaitza**: Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. EGABek osoko bilkura 2010eko otsailaren 17an egin du, eta Irizpenaren igorpena aho batez onetsi da.

## 2/2010 IRIZPENA, Diru-Sarreren Bermerako Errenta arautu duen Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2009ko abenduak 17

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera:** 2010eko otsailak 1

**Emaitza:** Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. EGABek osoko bilkura otsailaren 17an egin du, eta Irizpena botoen gehiengoaren bidez onetsi da.

## 3/2010 IRIZPENA, Euskal Herriko Erakundeen Arteko Publizitate eta Komunikazio Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko otsailak 23

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera**: 2010eko martxoak 10

**Emaitza:** Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. EGABek osoko bilkura 2010eko apirilaren 14an egin du, eta Irizpenaren igorpena aho batez onetsi da.

## 4/2010 IRIZPENA, Familien Euskal Behatokia sortu eta arautzeko Dekretu Proiektuari burzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data:** 2010eko martxoak 23

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera:** 2010eko apirilak 27

**Emaitza:** Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. EGABek osoko bilkura 2010eko maiatzaren 6an egin du, eta Irizpenaren igorpena aho batez onetsi da.

## 5/2010 IRIZPENA, Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko enpresei eman beharreko diru-laguntzak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa.

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data:** 2010eko martxoak 11

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Lopez de Munain Zulueta

**Batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera:** 2010eko maiatzak 5

**Emaitza:** Batzordeak batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta Idazkaritza Teknikoak proposatutako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da eta Irizpenaren Proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Halaber, hori 2010eko maiatzaren 6an egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da.

## 6/2010 IRIZPENA, Bidaia Agentzien Antolamendurako Dekretu Proiektuari buruzkoa.

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data:** 2010eko maiatzak 14

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza López de Munain

**Batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera:** 2010eko ekainak 14

**Emaitza:** Batzordeak batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta Idazkaritza Teknikoak proposatutako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da eta Irizpenaren Proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Halaber, hori 2010eko ekainaren 25ean egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da.

## 7/2010 IRIZPENA, Diru-Sarreren Bermerako eta Gizarteratzeko abenduaren 23ko 18/2008 Legea aldatu duen Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko martxoak 23

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera:** 2010eko ekainak 22

**Emaitza:** Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. Hala, hori 2010eko ekainaren 25ean egindako Batzordearen osoko bilkuran botoen gehiengoaren bidez onetsi da.

## 8/2010 IRIZPENA, Lehiaren Euskal Agintaritzarako Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko ekainak 17

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera**: 2010eko uztailak 6

**Emaitza**: Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. Hala, hori 2010eko uztailaren 19an egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da.

## 9/2010 IRIZPENA, Gizarte Larrialdietarako Diru-Laguntzak arautu dituen Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko uztailak 16

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera:** 2010eko uztailak 26

**Emaitza:** Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. Hala, hori 2010eko uztailaren 30ean egindako Batzordearen osoko bilkuran botoen gehiengoaren bidez onetsi da.

## 10/10 IRIZPENA, Gizarteratze Aktiborako Hitzarmenen Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko uztailak 16

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera**: 2010eko uztailak 26

**Emaitza**: Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. Hala, hori 2010eko uztailaren 30ean egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da.

## 11/2010 IRIZPENA, Drogazaletasunaren prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko legearen hirugarren aldaketa egiteko Legearen Proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko irailak 6

**Idazkaritza Teknikoa**: Leire Ozerin

**Batzordea**: Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilerak**:

- 2010eko irailak 15. Batzordean Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren Drogazaletasun Zerbitzuaren Celina Pereda Zuzendariak esku hartuko du, aipatutako Legearen Proiektua aurkezteko xedearekin.
- 2010eko irailak 24.

**Emaitza**: Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. Hala, hori 2010eko urriaren 8an egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da.

## 12/2010 IRIZPENA, Klima-aldaketari aurre egiteko Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

**Fecha de entrada en el CES Vasco**: 13 de octubre de 2010

**Secretaría Técnica**: Leire Ozerin

**Comisión**: Comisión de Desarrollo Social

**Reunión**: 16 de noviembre de 2010

**Resultado**: Se discute el Anteproyecto de Dictamen redactado a partir de las propuestas y opiniones aportadas por los miembros del Consejo. A partir de los acuerdos adoptados, se emite Proyecto de Dictamen, elevado al Pleno del CES. El CES celebra una Sesión Plenaria el 24 de noviembre de 2010, en la que se aprueba, por unanimidad, la emisión de Dictamen.

## 13/2010 IRIZPENA, Barne-merkatuari buruzko Europako Parlamentuaren eta Batzordearen abenduaren 12ko 2006/123/EB Zuzentaraura egokitzeko Lege batzuk Aldatzeko Legearen Aurreproiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data:** 2010eko urriak 27

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza López de Munain

**Batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea

**Bilera:** 2010eko azaroak 22

**Emaitza:** Batzordeak batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta Idazkaritza Teknikoak proposatutako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da eta Irizpenaren Proiektua EGABren osoko bilkurari helarazi zaio. Halaber, hori 2010eko azaroaren 24an egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da.

## 14/2010 IRIZPENA, Gizarte eta Osasun Arretarako Euskal Kontseilua arautu duen Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko azaroak 11

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera:** 2010eko azaroak 26

**Emaitza:** Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. Hala, hori 2010eko abenduaren 9an egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da.

## 15/2010 IRIZPENA, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiaren Dekretu Proiektuari buruzkoa

**Euskadiko EGABn egindako sarrera-data**: 2010eko azaroak 12

**Idazkaritza Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga.

**Batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea

**Bilera:** 2010eko azaroak 26

**Emaitza:** Batzordeko kideek aurkeztutako proposamenak nahiz iritziak oinarri hartuta idatzitako Proiektuaren Aurreproiektua eztabaidatu da. Halaber, hartutako akordioak abiapuntu hartuta, Irizpenaren Proiektua igorri da, eta hori EGABren osoko bilkurari helaraziko zaio. Hala, hori 2010eko abenduaren 9an egindako Batzordearen osoko bilkuran aho batez onetsi da

## 2. EAE-ko Memoria Sozioekonomikoa

Euskal Autonomia Erkidegoko 2009ko Memoria Sozioekonomikoa Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 2010eko urriaren 27ko osoko bilkuran onetsi zen. Hori dela bide, organo horri atxikitako lege-agindua bete da, hots, urtero EAEko ekonomia- eta gizarte-egoerari buruzko oharrak azaltzen dituen memoria egin eta Gobernuari eta Euskal Legebiltzarrari igortzea.

Lan hori egiteko lan-batzorde arduradunean ondoko hauen esku-hartzea nabarmendu behar dugu: LBren Antxon Tomasena jn. eta Eduardo García jn., UGTren Maribel Ballesteros and. eta Raúl Arza jn., CONFEBASKeko Eduardo Aréchaga jn. eta Jaime Fernández jn., EHUko Sylvia Gay and., Aurrezki Kutxa eta Finantza Erakundeetako Rafael Aranguren jn., ASLEko Javier Muñecas jn. eta nekazaritza-erakundeetako Xabier Iraola jn., bai eta Felicísimo Ayastuy jn., Iñaki Barrenetxea jn., Aitor Bengoetxea jn. eta Carlos Trevilla jn., EGABren aditu-taldeko kide gisa, eta Arantza Unzurrunzaga and., Idazkari Tekniko gisa.

Dokumentazio teknikoa EGABren Azterlanen eta Proiektuen Leire Ozerin eta Arantza Unzurrunzaga arduradun andreek garatu zuten. Horiekin batera, Batzordean akreditutako bestelako erakundeen eta adituen ekarpenak aurkeztu ziren.

2009ko Memoria egin ahal izateko, Batzordeak lau lan-bilera antolatu zituen: 2010eko apirilaren 30ean, ekainaren 18an, uztailaren 22an eta irailaren 24an, eta data horretan “EAEren 2009ko Memoria Sozioekonomikoa” aho batez onetsi zen.




Euskadiko EGABek gure autonomia-erkidegoko memoria sozioekonomikoari buruz egindako hamahirugarren edizioan ekonomiaren eta gizartearen errealitateari buruzko daturik garrantzitsuenak aztertu dira, eta Batzordea osatzen duten ekonomia- nahiz gizarte-eragile ezberdinen diagnostiko partekatua eskaintzen du.

EAEren 2009ko Memoria Sozioekonomikoan aurreko edizioetako edukien ildo orokorrak aplikatu dira. Halaber, "Laburpena eta Ohar Orokorrak" izeneko azken atalaz gain, Memoriaren edukiak multzo handi hauetan bereizten dira:

## I.KAPITULUA Jardueran ekonomikoa garatzeko baliabideak EAE-n

1. GIZA BALIABIDEAK EAEN:
   - Demografía eta immigrazioa.
   - Hezkkuntza eta hezkuntza-sustapena.
2. EKOIZPEN-EGITURA ETA BERRIKUNTZA EAEN:
   - Ekoizpen egitura.
   - I+G+i eta IKT jarduerak.
3. NATURA-INGURUNEAREN EGOERA EAEN
4. EKOIZPEN-AZPIEGITURAK

## II.KAPITULUA Ekonomia EAEn

1. KANPOKO INGURUNE EKONOMIKOA
2. EAEREN ABAGUNE EKONOMIKOA
3. SEKTORE PUBLIKOA
4. GIZARTE-EKONOMIA
5. LAN-MERKATUA
6. PREZIOAK, KOSTUAK ETA ERRENTAK

## III.KAPITULUA Bizi-kalitatea EAEn

1. KOLEKTIBO INTERESGARRI ZEHATZEN BIZI-BALDINTZAK : GAZTERIA ETA ADINEKOAK
2. OSASUNA ETA OSASUN-SISTEMA
3. HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA
4. AISIA, KULTURA ETA KONTSUMOA
5. POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKERIA

## IV.KAPITULUA Gizartearen babesa EAEn

1. LANGABEZIAREN BABESA
2. GIZARTE SEGURANTZAREN PRESTAZIOAK
3. POBREZIA ETA GIZARTE-BAZTERKERIAREN AURKAKO NEURRIAK
4. GIZARTE AURREIKUSPENEKO SISTEMA OSAGARRIAK

## V.KAPITULUA Garapenerako lankidetza EAEn

## VI.KAPITULUA Arauketa-jarduera EAEn

## 3. Ekimen propioa

### EKIMEN PROPIOAREN BIDEZ EGINDAKO AZTERLANAK

2010. urtean, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean ekimen propioaren bidez abian jarritako txostenak egiteko lanak aurrera eraman dira. 2003. urtean abian jarritako lan-ildo hori dela eta, hautatutako gaiak sakon jorratu ahal izan dira, horiek guztiak gure herrialdearen ekonomia eta gizartea garatzeko garrantzi berezia izanik, bederen. Azterlan konplexuak dira, eta horien bidez EGABek iritzien sortzailearen eginkizuna beteko du. Hain zuzen ere, eginkizun hori, Euskadiko EGABren ekainaren 27ko 97/1997 Legearen 3.d) artikuluan jasota dago..

2010. urtean azterlan hauek egiteko lanak garatu ziren:

### EKONOMIAREN ETA GIZARTEAREN ERAGINA EAEn AURREIKUSITAKO DEMOGRAFIAREN BILAKAERARI BEGIRA

**Lan-batzordea:** Gizarte Garapenerako Batzordea
**Arduradun Teknikoa:** Arantza Unzurrunzaga

#### Justifikazioa
Hasi berri den XXI. mende honetan, zahartze demografikoak mendebaldeko gizarteen gain eragin garbia du. Izan ere, 2050. urteari begira 60 urte edo gehiagoko pertsonen ehunekoa bikoiztu egingo dela aurreikusi da. Hala ere, prozesu horren dimentsioa kezkagarria da, aldi berean, gure gizarteetan jaiotza-tasen jaitsiera gertatzen ari baita. Horrenbestez, biztanleriaren osotasunean adinekoen garrantzia areagotu egingo da. Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremuan ikuspegia antzekoa da, edo are gehiago, ezaugarriak nabarmenagoak dira.
Zalantzarik ez dago joera horiek garrantzi handiko erronkak plantearazten dituztela, bai mendebaldeko gizarteetan bai Europako gizarteetan orokorrean eta bereziki euskal gizartean. Hazkunde demografikoa gero eta garrantzitsuagoa izango da biztanleriak nahiz horren eraketak neurri batean hur-hurreko etorkizunean beharrizan zehatz batzuk sorraraziko dituzte eta.

#### Xedea
Testuinguru horretan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da ezarritako bilakaera demografikoak EAEn izango dituen eragin ekonomikoei eta gizarte-eraginei buruzko ikuspegiaren azterketa egitea. Egitate demografikoa, modu horretan, gizartearen osotasunerako joerei eta ondoreei eta eragin positiboak aprobetxatu eta negatiboak murrizteko moduari buruzko gogoetak oinarri duen funtsa bihurtuko da.
Ildo beretik, azterlanaren edukiaren barruan EAEri begira ezarritako bilakaera eta aurreikuspen demografikoak jaso dira, bai eta euskal bizitza ekonomikoaren eta gizarte-bizitzaren atal ezberdinetan jasotako biztanleriaren zahartzeak eragin

ditzakeen ondoreak ere. Jarraian, gure inguruko herrialdeetan finkatutako aldaketa demografikoarekin zerikusia duten politikak berrikusi dira, batik bat, gure autonomia-erkidegoan planteatutako erronkei aurre egitea ahalbidetzen duten jarduketa-gomendioak egiteko erreferentzia gisa.

### Edukia

- Gaur egungo egoeraren azterketa eta ikuspuntu demografikoak: epe ertainean eta epe luzean EAEn, Europako eta Estatuko testuinguruetan alderatuta. Azken hamarkadetako bilakaera demografikoa nahiz horien baldintzak eta estatistikako organo ezberdinek egindako aurreikuspen demografikoak aztertu eta azkenean ezarritako aldaketa demografikorako faktore nagusiak identifikatuko dira.
- Aurreikuspen demografikoen ondoreen identifikazioa eta azterketa EAEko ekonomia- nahiz gizarte-eremu ezberdinetan. Hain zuzen ere, garrantzi handiena duten gizarte- eta ekonomia-alor hauek aukeratu dira, eragin maila kontuan izanda:
    - Lan-merkatua
    - Pentsioen sistema
    - Osasuna eta Gizarte Zerbitzuak
    - Hezkuntza-sistema

  Alor horietako bakoitzari dagokionez, kasu bakoitzean jasotako aldagai ezberdin esanguratsuetan gertatutako bilakaera demografikoaren itxarondako ondoreak aztertu dira, bai eta gizartearen beharrizanen nahiz eskarien ondorioak, gizartekoak, gastu publikoa, eta abar ere.
- Nazioarte mailan (batez ere Europar Batasunaren herrialdeetan) planteatutako aldaketa demografikoarekin zerikusia duten estrategien eta politiken berrikuspena, identifikatutako erronka demografikoei aurre egiteko. Politika horien azterketa aurretik zehatz-mehatz xehatutako gizarte- eta ekonomia-alorren inguruan jorratu dira.
- Azterlan eta ondorio garrantzitsuenen ondorioz agerian utzitako gairik nabarmenen laburpena, ohar eta gomendio batzuk zehazteko helburuarekin, gure erkidegoan zahartze demografikoari buruzko erronkei aurre egiteko moduari begira.

### Lanen garapena eta egindako bilerak

Urtean zehar Lan-batzordeko kideek Azterlanaren ondoz ondoko zatiak jaso dituzte, eta bertan jaso beharreko hainbat ekarpen nahiz iradokizun egin dituzte. Emaitza gisa, Batzordea 2010eko uztailaren 1ean bilera monografikoan bildu da, eta bertan lanaren 1-4 arteko kapituluan aho batez onetsi dira.

Urtearen azken hilabeteetan 5. atala (Laburpena eta ondorioak) eta 6. atala (Oharrak eta gomendioak) idatzi eta bat egingo dira, eta 2011ko lehenengo hilabeteetan amaituko da

## EAEko GIZARTE- ETA EKONOMIA-BEHARRIZANETARA EGIN BEHARREKO HEZKUNTZA-SISTEMAREN EGOKITZAPENA

**Lan-batzordea:** Garapen Ekonomikorako Batzordea
**Arduradun Teknikoa:** Leire Ozerin

### Justifikazioa

Globalizazioa, joera demografiko berriak, teknologia berrien aplikazioa, teknologia berriak edo berdeak saritzen dituen ekonomiarako igarobidea, lan-antolakuntzan egindako aldaketak, beste batzuen artean, gaur egungo ekonomia- eta gizarte-ereduaren bilakaera agerian uzten duten osagaiak dira; aldaketa-prozesua, betiere epe labur, epe ertain edo epe luzean eginda.

Testuinguru horretan, badirudi ezinezkoa dela gizarte- eta osasun-sistema, ekonomia- eta ekoizpen-sistema, hezkuntza-sistema edo sistema politikoa, besteak beste, sistema aldaezintzat jotzea, ezpada bilakaera-prozesuan dauden sistematzat joko dira.

Biztanleriaren zahartzeak, migrazioek eta garapen iraunkorrak, hiru premisa horiek kontuan izanda (gizartea, ingurumena eta ekonomia), belaunaldien errelebuak eta teknologia berriek halakoek eragindako ondorioekin batera, zalantzarik gabe, enpleguaren, lanpostuen eta prestakuntzen gain eragina izango dute.

“EBren Estatu kide gehienetan lan-merkatuan dauden ahalmenen desfasearen inguruko kezka areagotu egin da. Informazio ezegokia eta egituraren zorroztasunak direla medio, langileek eta enpresek ez dute hartzen euren gain beharrezkoak diren ahalmenak eremu egokiei begira, eta beraz, lehiakortasunaren gain eragin esanguratsua sortzen da, bereziki, enpresa txikien kasuan. EBren unibertsitateek nahiz prestakuntza-sistemek igorritako ahalmenen eraketak ez du erabat lan egiten berrikuntzara zuzendutako ekonomiaren mesederako.” (BAT (2008) 868 amaiera).

Enpleguan eta lanpostuetan aldaketak gertatzen ari dira sektore ezberdinen bilakaera aintzat hartuta (gizartearen beharrizan berriak, eskariaren aldaketak, lan-antolakuntzaren aldaketak, IKTen bilketa, belaunaldien errelebua…). Eta ondorenez, lanpostu batzuk garrantzia galtzen ari dira beste batzuen mesederako, eta horrek eskatutako prestakuntzen gain eragina izango dute eta eragina dute. Hori dela medio, beharrezkoa izango da enpleguaren eta prestakuntzen eskariaren nahiz eskaintzaren, hots, hezkuntza-prestakuntzaren eskaintzaren, dela arautua dela arautugabea, hau da, etengabeko prestakuntzaren arteko doikuntza egitea.

Badirudi adostasuna dagoela lehen mailako sektorean enpleguak galtzen ari direla adierazten denean, industriak eta eraikuntzak garrantzia galdu dezakete enplegu osoari begira, baina bereziki, aldaketak eskatutako lanpostuen nahiz prestakuntzen tipologian gertatuko dira (BAXUA: ISCED 0-2, ERDI MAILA; ISCED 3-4 eta GOI MAILA: ISCED: 5-6) ; eta zerbitzuen sektorearen kasuan, enplegu osoaren garrantzia hazi egingo da jarduera-adar ezberdinak areagotuta, hala nola, kultura eta aisia, hezkuntza, zerbitzu aurreratuak, gizarte- eta osasun-zerbitzuak,...enplegua eskatuta, eta horrenbestez, beharrezkoa izango da goi mailako (ISCED 5-6), erdi mailako (ISCED 3-4) eta behe mailako (ISCED 1-2 ostalaritza, osasun-laguntza eta etxez etxeko laguntza, logistika eta garraioa,...) lanpostu berriak betetzea.

Amaitzeko, dibertsifikazioa gertatzen ari da, gutxieneko sektoreak, irudiberritze-fasean murgildutako sektoreak, baina neurri handiagoan edo txikiagoan aintzatetsi daitezkeen oinarri teknikoekin eta ekoizpen-oinarriekin, eta garapen-fasean murgildutako sektoreak daudela nabarmenduta. Halaber, horrek enpleguaren, eskatutako lanpostuen eta beharrezkoak diren eta izango diren prestakuntzen gain eragina izango du.

Ikuspegi horretatik, iraganean bezala, ezinbestekoa da aldaketak aukeratzat jotzea, eta hori gaur egungo egoera aztertzeko ahalmenarekin eta zaintza, aurreikuspena eta aldaketarekiko egokitzapenarekin erabat lotuta dago.

### Xedea

Testuinguru horretan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen ustez, egokia da ezarritako EAEko gizarte- eta ekonomia-jardueraren beharrizanetara egin beharreko hezkuntza-sistemaren egokitzapenari buruzko azterketa egitea, gaur egun, prestakuntzen eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntza maila aztertu ahal izateko, lan-merkatuak egiten duena, epe laburrean, epe ertainean eta epe luzean beharrezkoak izango diren lanpostuen eta prestakuntzen zaintzara hedatzeko modua izanda.

### Edukia

| | |
|---|---|
| I KAPITULUA | Sarrera eta metodologia |
| II KAPITULUA | Kapitulu horretan, zehatza izan gabe, eremu zientifikoan, teknologikoan, ekonomikoan, enpresetan eta gizartean jasotako joerei buruzko informazioa aztertzen da.. |
| III. KAPITULUA | Kapitulu horretan, gaur egun, lan-merkatuak egindako prestakuntzen eskaintzaren eta eskariaren arteko doikuntza maila aztertu nahi da. |
| IV. KAPITULUA | Gure gaur egungo hezkuntza- eta prestakuntza-sistemaren ikuspegi kuantitaboa aurkezten da. |
| V. KAPITULUA | Nazioarteko praktika onen azterketa. |
| VI. KAPITULUA | Lanaren Laburpena jasotzeaz gain, ondorioak aurkeztu dira. Bada, horietan hezkuntza- eta prestakuntza-eskaintzaren inguruko lanpostuen nahiz nazioarteko praktika onen azterketaren ondorioz eskuratutako ikaskuntzen eta hobekuntzarako proposamen eta/edo gomendio zehatzen azken asmoen arteko alderatzea egingo da, doikuntza horretan giltzarriak diren tresnei, prozesuei eta prozedurei arreta berezia jarrita. |

### Lanen garapena eta egindako bilerak

Ekonomia Batzordea 2009. urtean bi aldiz (otsailak 25 eta uztailak 21) bildu da, abian jarri nahi den azterlanaren profila egin ahal izateko. Urte bereko urriaren 9an Batzordeak kontratazio-oinarriak onetsi ditu.

2009ko azaroaren 3an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean kontratazio-prozedurarako deialdiaren iragarkia argitaratu zen, eta berehala EGABren

webguneko kontratugilearen profilean administrazio-klausulen eta agindu teknikoen agiri egokia argitaratu zen.

Halaber, egiletsitako epean zazpi enpresek proposamenak aurkeztu zituzten. Garapen Ekonomikorako Batzordeak, 2010eko urtarrilaren 12an egindako bileran, Makina Herramintaren Prestakuntza Teknikorako Fundazioak egindakoari puntuaziorik onena eman zion.

Euskadiko EGABren Batzorde Iraunkorrak 2010eko otsailaren 3an kontratuaren esleipena Makina Herramintaren Prestakuntza Teknikorako Fundazioaren mesederako onetsi zuen, eta astebete igaro ondoren, kontratua sinatu zen.

Lan-batzordea irailaren 20an bildu zen I eta II. Kapituluen lehenengo ematea eztabaidatzeko. Halaber, emate hori zabala eta ez hain erabilgarria zela adierazi zuen, eta beharrezkoa izan da enpresa aholku-emailearekin bilera egitea. Hain zuzen ere, bilera hori astebete beranduago egin zen. Azaroaren 8an, Lan-batzordea berriro bildu zen III. Kapituluaren ematea eztabaidatzeko. Izan ere, ahulezia batzuk aurkezten zituen, eta enpresa aholku-emaileak azaroaren 17an eztabaidatu zuen.

2010eko abenduaren 22an eta 23an, enpresa aholku-emaileak emate horien bertsio berriak bidali zituen, eta horiek, urtearen itxieran, EGABren Zerbitzu Teknikoek aztertu zituzten, Batzordeari igorri aurretik, horrek eztabaidatu, eta hala denean, onesteko

## EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GARAPENA

**Lan-batzorde eskuduna:** Garapen Ekonomikorako Batzordea
**Arduradun Teknikoa:** Arantza López de Munain

### Justifikazioa

Energia berriztagarriek funtsezko eginkizuna betetzen dute gure inguruko herrialdeen klimaren eta energien politikei dagokienez, berotegi-efektuko gasen igorpena murriztu eta energia autoktonoen nahiz deszentralizatuen iturriak ustiatzeko ahalmena dela medio, kanpoarekiko mendekotasuna jaisteko, bai eta teknologia aurreratuaren industriak ustiatzeko ahalmena dela medio ere. Modu horretan aintzatetsi zuten, hain zuzen, EBren estatuburuek eta gobernuburuek, 2007ko Europako Kontseiluan bilduta. Izatez, EBk *Europa eraginkortasun energetiko altuko eta berotegi-efektuko gasen igorpen baxuko ekonomia* bihurtzeko konpromisoa hartu du, eta 2020rako berotegi-efektuko gasen igorpena %20 murriztu eta energiaren kontsumoa %20 aurrezteko erabakiaz hartzeaz gain, 2010rako islatutako balioekin erkatuta, 2020ko EBren energiaren kontsumo osoari begira energia berriztagarrien %20ko xede kuantitatiboa eskuratzeko xedea ezarri da.

Erabaki hori dela eta, EBk epe luzean energia berriztagarriekiko hartutako konpromisoa nabarmendu da, energia berriztagarrien handinahiko esku-hartzea erdiesteko betebeharra barnean hartuta, aplikazio guztiak bilduta (elektrizitatea, beroa, hozte-sistema eta garraioa), eta, oraingoan, izaera loteslearekin, sektoreari epe luzeko iraunkortasuna eta inbertsoreei segurtasuna atxikita, eta energia sortzeko

teknologien garapen etengabea sustatuta energia berriztagarrien iturriak oinarri hartuta.

Konpromiso politikoa lege-bermeez hornituta dago, Klima-Energiaren legegintzako multzoaren barruan, aurtengo apirilean onetsitako energia berriztagarrien ondoriozko energien erabilera sustatzeko 2009/28/EB Zuzentaraua kontuan izanda, eta Espainiaren xedea 2020rako energia berriztagarrien %20ko kuota osoa eskuratzea da. Euskal Administrazioak 80. hamarkadatik aurrera Euskadin energia berriztagarriak bultzatu ditu, eta 2011tik aurrera aplikatu beharreko estrategia energetiko berria Europan politika energetikoa eta energia berriztagarriak bultzatzeko politikara zuzenduta egon beharko da.

### Xedea

Testuinguru horretan, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordean EAEn energia berriztagarriak garatzeko gaia jorratzeko interesa sortu da, bai Energia Berriztagarriak bultzatzeko Europako politika energetikoaren aginduen betepenaren eremuan, bai ingurumenaren iraunkortasunari, garapen ekonomikoari eta enpleguaren sorrerari begira horiek sorrarazten dituzten abantailen aprobetxamenduaren eremuan, batik bat, azterlan bat eginda. Hain zuzen ere, azterlan horren bidez, Euskadiko EGABek Energia Berriztagarriak garatzeko EAEk dituen ahalmenak ezagutu, horren inguruko esparrua aztertu eta prozesu hori aurrera eramatea ahalbidetzen duten neurriak definitu ahal izango ditu.

### Edukia

- Energia berriztagarrien iturri ezberdinen, horiek eskuratzeko teknologien eta 2020 eta 2050. urteei begira horiek izan dezaketen bilakaeraren deskripzioa, EAEn aurretik dauden eta ustiatu daitezkeen energia-baliabideak nahiz energia bihurtzeko teknologia-motak zehaztu ahal izateko.
- EAEn aprobetxatu daitekeen energia berriztagarrien iturri bakoitzaren ondoriozko energia sortzeko ahalmenaren ebaluazio kuantitatiboa, 2020 eta 2050. urteei begira teknologiak izango duen bilakaeraren eraginkortasun teknologikoa eta energiaren beharrizan guztiei begira EAEk horiek asebetetzeko duen ahalmena kontuan izanda, denborazko bi data horietan jaso daitezkeen iturri berriztagarriak abiapuntu hartuta.
- Faktore ez-teknologikoen azterketa, EAEren energia berriztagarrien garapena azpimarratuta, betiere garapenerako alderdi positiboak identifikatzeaz gain, oinarri-oinarrian, prozesu horretan balazta gisa aplikatutakoak identifikatzeko, horiek berriro gidatu daitezen. Esparru juridikoak, ekonomikoak, finantzarioak eta ingurumen-esparruak EAEn aprobetxatu daitezkeen energia berriztagarrien mota bakoitzari begira duen egokitzapena deskribatu eta baloratu da, bai eta gizartean horrek izandako onargarritasun maila ere.
- Arreta berezia jarriko zaio EAEren energia berriztagarrien gizarte- eta ekonomia-egoeraren eraginari, dela enpresaren eta teknologien ahalmenen eremuan, dela enpleguaren sorreraren eremuan.

### Lanen garapena

Azterlanaren edukiak 2009an egindako lehiaketa publiko egokiaren bidez aukeratutako kanpoko talde kontsultorearen parte-hartzearekin bilduko dira, Euskadiko EGABren zerbitzu teknikoek garatutako Zuzendaritza teknikoaren mende, eta ostean, horren azterketa eta eztabaida Garapen Ekonomikorako Batzordean egingo da. Lanak martxoan abian jarri ziren, eta uztailaren 8an lan-batzordearen bilera egin zen, EAEren energia berriztagarrien iturriei eta baliabideei buruzko multzoa jorratzeko. Ahalmenak lantzeko abenduaren 10erako antolatutako bilera berriro 2011ko otsailean egitea erabaki zen.

## TRIBUNAK ETA KONFERENTZIAK

### EMILIO ONTIVEROS: “KRISI EKONOMIKOA. EKONOMIA IRAUNKORREKO LEGEA ERANTZUNA OTE DA?”

### Bilbo, 2010eko urtarrilak 21

Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak urtarrilaren 21ean Bilbon “EGABren Tribuna”ren seigarren edizioa antolatu zen, Emilio Ontiveros jaunaren parte-hartzearekin, Madrilgo Unibertsitate Autonomoaren ekonomia- eta finantza-analista eta Enpresa Ekonomiaren Katedraduna dena. Adituak orain dela bi urte Espainiako egoeran sortutako finantza-krisia jorratu zuen. Ontiverosen iritziz, une horretan "atzeraldi-fase berrian murgildu ginen".



Hitzaldiaren garapenean, "Crisis Económica. Singularidad y alcance. ¿Es la Ley de Económia Sostenible la respuesta?" izenburupean, adituak azken hamarkadetako krisialdi berezienak eskainitako dimentsio ezberdinetan irekitako ikuspegiak aztertu zituen, eta politika ekonomikoaren erantzun eman berriak baloratu zituen. Ildo beretik, finantza-analistak arreta berezia jarri zion jarduera ekonomikoa bultzatu eta Espainiako ekonomiaren hazkunde-eredua dibertsifikatzera zuzendutako proposamenei.
EGABren Tribuna, gisa berean, krisialditik irteteko bankuen eginkizuna eta langabeziak finantza-erakundeen egoeraren gain izandako eragina aztertzeko esparrua da. Ontiverosek esan duen bezala, bankuen egonkortasuna orain arte inoiz ez da egon hain neurri handian lan-merkatuen bilakaeraren mende.

## CARLOS AGUIRRE: "EUSKAL EKONOMIA, AZTERKETA ETA IKUSPEGIAK"

### Bilbo, 2010eko apirilaren 21

EGABren Tribunaren VII. edizioan Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Saileko Carlos Aguirre Sailburuaren esku-hartzea izan dugu, "Euskal Ekonomia, Azterketa eta Ikuspegiak" izenburupeko hitzaldiarekin, Bilbon, apirilaren 21ean.




Lehenengo zatian, hizlariak euskal ekonomiaren hur-hurreko bilakaera aztertu zuen, eta EAEn gertatutako atzeraldiaren erritmo baxuagoa nabarmendu zuen, Estatuan dagoen erritmoarekin alderatuta, merkataritzarekiko lotura estuaren ondoriozko sinkronia zikliko esanguratsua egon arren. Epe laburreko aurreikuspenak adierazi zituen, hazkunde-tasa positiboak baieztatuta hiruhileko datuetan, eta hiruhilekoarteko datuetan, eta urtetik urterako datuetan 2010eko lehenengo seihilekoan.

Hitzaldiaren bigarren zatian, Aguirre Sailburuak Eusko Jaurlaritzaren politika ekonomikoa aztertu zuen, krisialditik irteteko ezarritako jarduketak azalduta, betiere EBren politikarekin bat etorrita, Egonkortasun eta Hazkunde Ituna eta 2020ko Europa Estrategia beteta.

## PHILIP COOKEn HITZALDIA: "ESKUALDEEN BERRIKUNTZA ETA PRESTAKUNTZAREN BEHARRIZANAK EAEn"

### Bilbo, 2010eko urriaren 13

2010eko urriaren 13an, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, garatzen ari den Ekimen Propioaren Azterlanaren esparruaren barruan, Philip Cooke irakasleak "Eskualdeen Berrikuntza eta Prestakuntzaren Beharrizanak EAEn" izenburupean eskainitako hitzaldia antolatu zuen, eta horren xedea zientziaren, teknologiaren, enpresaren eta gizartearen ekonomiaren eremuko nazioarteko joeren ikuspegia nahiz EAErako igurikimenak azaltzea izan da, prestakuntzaren inguruan sortzen ari diren beharrizanak aztertzen diren heinean.



Cooke irakaslearen aburuz, berrikuntzaren eskualde-sistemei buruzko teorien aitatzat jotakoa, "Euskal Herriaren ekonomiak jasandako bira nabarmena izan da, baina orain beharrezkoa da trantsizio handia gertatzea zerbitzurik sortzaileenak eta sistema ekonomiko espezializatuenak erdiesteko". Era berean, irakasleak adierazi duenez gero, eskualdeen etorkizunean, Euskadi barnean hartuta, "garapen adimentsua, eraginkorra, berdea eta sortzailea eskuratu behar da, bai eta *zeharkotasuna* aplikatu ere".

Galesko adituak nazioarteko eskualde ezberdinetan bizi izandako esperientzia zehatza aztertu ondoren, sormena eta zeharkotasuna (sektoreen arteko eta diziplen

(zientifikoak, teknologikoak, artistikoak, humanistikoak…) arteko fluxu gisa ulertuta) osagai giltzarriak direla adierazi du, garapen ekonomikoaren garapen iraunkorra eskuratzeko xedearekin.

Hitzaldian baieztatu ahal izan zenez gero, eskualde horietan egindako sektoreen arteko dibertsifikazioak gutxieneko sektoreak, irudiberritze-fasean murgildutako sektoreak, baina neurri handiagoan edo txikiagoan aintzatetsi daitezkeen oinarri teknikoekin eta ekoizpen-oinarriekin, eta garapen-fasean murgildutako sektoreak nahasten ditu, eta horrek guztiak enpleguaren, eskatutako lanpostuen eta beharrezkoak diren eta izango diren prestakuntzen gain eragin garbia izango du.

"Gainbeheran" dauden industria askoren ikuspegitik, horiek iraun dezakete ekonomia berdearen eta iraunkorraren ekonomiaren esparruan itxuraldatu eta egokitzen badira, eta adibide gisa hauek adierazi zituen: itsas industriaren eta *offshore* haize-turbinen fabrikaziorako industriaren ezagutzen, teknologien eta prestakuntzen nahasketa; edo ehun-industriaren eta osasun-industriaren artekoena, osasun-arloko langileentzat arropa ezaugarri bereziekin fabrikatzeko.

Bada, iraganeko prestakuntzak gaur egun ere erabilgarriak izan daitezke zeharkotasuna dutela erakusten badute. Beraz, diziplina ezberdinak partekatzen dituzten goi mailako eta/edo erdi mailako prestakuntza teknikoen beharrizana nabarmendu zuen, hala nola, mekatronika, doitasun-mekanika, elektronika, informatika eta kontrol-sistemak barnean hartuta.

## III. KAPITULUA

# Erakunde-jarduera eta agerraldiak

# 1. Erakunde-jarduera

## URTARRILA

15 Idazkari Nagusiak Europa Forumean Estatuko Cándido Conde-Pumpido fiskal nagusi jaunaren hitzaldian parte hartu du.

## OTSAILA

2 Presidenteak eta Idazkari Nagusiak Funtzio Publikoko Juan Carlos Ramos Sailburuordearekin eta Funtzio Publikoko Mª Luisa Cuesta Zuzendari andrearekin Eusko Jaurlaritzan bilera egin dute.

8 ADEGIko Eduardo Zubiaurre Presidente jaunaren konferentzia Europa Forumean. Presidenteak parte hartu du.

16 Presidenteak CONFEBASKeko Miguel Lazpiur Presidenteak Europa Forumean eskainitako konferentzian esku hartu du.

18 Presidentea Eusko Jaurlaritzako Kanpo Ekintzarako Guillermo Echenique Idazkari Nagusi jaunarekin bildu da, Batzordearen kanpo-lankidetzarako jarduera aurkezteko.

Presidentea Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko Javier Ruiz Sailburuorde jaunarekin Eusko Jaurlaritzan bildu da.

22 Idazkari Nagusiak Galiziako Xuntaren Alberto Núñez Lehendakari jaunak eskainitako konferentzian parte hartu du, Nueva Economía Fórumek prentsarekin antolatutako topaketan.

24 Europa Forumean Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saileko Iñaki Arriola Sailburu jaunaren konferentzia. Presidenteak esku hartu du.

26 Kataluniako Consell de Treball Economic i Social eta Lan Harremanetarako Batzordera egindako bisita. CTSECren Josep Mª Rañe Presidente jaunak eta Teresita Itoiz Idazkari Nagusi andreak parte hartu dute, bai eta CRLren Raquel Serrano Idazkari Nagusi andreak ere.

## MARTXOA

12 Ganberako ostiralak. “Bilbao en Shangai 2010. Enpresentzako aukera” Konferentzia. Idazkari Nagusiak esku hartu du.

15 Presidenteak Europa Forumean Euskadiko UGTren Dámaso Casado Idazkari Nagusi jaunak eskainitako konferentziak esku hartu du.

23-24 Euskadiko egoitzan EB-Hego Amerika Sozietate Civil Antolatuaren 6. Topaketaren Prestaketa Bilera egin da. Topaketa horren bigarren jardunaldian Presidenteak eta Batzordeko kide batzuk "EBren eta Hego Amerikaren arteko harremanak: ekonomia- eta gizarte-eragileen ikuspegia" izenburupean antolatutako eztabaida irekian esku hartu dute.



## APIRILA

14 Euskadiko EGABren Osoko Bilkura berriaren lehenengo bilera egin ondoren, Presidenteak eta Idazkari Nagusiak Batzordean parte-hartzea amaitu duten Sailburu eta hurrengo legealdirako izendatutako Sailburu berriekin bazkaria egingo dute.

23 ASLEren Batzar Orokorra. Presidenteak esku hartu du

29-30 Espainiako EGABek EBren Espainiako Lehendakaritzaren esparruan "Hazkundearen estrategia 2010tik aurrera aldaketa-fasean murgildutako Europan" mintegia antolatu du. Mintegi hori Europar Batasuneko herrialde kideen Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen eta Europako Ekonomia eta Gizarte Gaietarako Batzordearen hausnarketa-topaketa izango da, esperientzia nazionalak eskualdatu eta ikuspegi ezberdinak bat egiteko. Presidenteak esku hartu du.

## MAIATZA

10 Presidenteak Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren Presidente gisa izendatutako Juan Luis Ibarra jaunak kargua hartzeko ekitaldian esku hartu du.

19 CEBEKek Batzar Nagusi Ohikoa egin du "Gure enpresen eta euskal gizartearen ekonomiaren eta finantzaren ikuspegiak" izenburupean. Bertan Presidenteak eta Idazkari Nagusiak esku hartu dute.

25 Presidenteak Bikaintasunerako Novia Salcedo Saria Gazteak Laneratzeko Sariaren III. Edizioaren garaikurren banaketan parte hartu du.

26 Presidentea eta Idazkari Nagusia Enplegu eta Gizarte Gaietarako Gemma Zabaleta Sailburu andrearekin bildu da. Bertan, orobat, Gizarte Gaietarako Fernando Fantova Sailburuordeak, Laneko Carlos Zapatero Sailburuordeak eta Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko Javier Ruiz Sailburuordeak esku hartu dute.

27 ADEGIk antolatutako “Enpresaren eguna 2010” ospatu da. Presidenteak “Garai berrirako aukerak eta ziurgabetasunak” enpresa-topaketan eta Joxe Mari Kortari egindako omenaldian esku hartu du.

## EKAINA

9 Presidentea eta Herrizaingo Saileko Rodolfo Ares Sailburuaren arteko bilera.

10 Presidentea eta Idazkari Nagusia SEAko eta Arabako Merkataritza Ganberako ordezkariekin bildu dira.

11 Presidenteak LSB-USOren 10. kongresuan esku hartu du.

14 Idazkari Nagusia Ingurumena, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Pilar Unzalu Sailburu andrearekin eta Nuria Navarro aholkulari andrearekin bildu da.

16 Presidentea eta Idazkari Nagusia Etxebizitza, Herri Lan eta Garraioko Iñaki Arriola Sailburu jaunarekin eta Kabineteko Esteban Elola jaunarekin bildu dira.

17 SEAren Batzar Orokorra egin da. Presidenteak eta Idazkari Nagusiak esku hartu dute



21 Euskadiko EGABren Presidentearen eta Eusko Legebiltzarraren Arantza Quiroga Presidente andrearen arteko bilera.

21 Idazkari Nagusiak Merkataritza Ganberetako Kontseilu Nagusiaren Javier Gómez-Navarro lehendakari jaunak Arabako Merkataritza Ganberan antolatutako konferentzian esku hartu du.

22 Presidentea eta Idazkari Nagusia Lan Harremanetarako Batzordearen homologoekin erakunde horren egoitzan bildu dira.

Presidentearen eta Ekonomia eta Ogasuneko Carlos Aguirre Sailburu jaunarekin eta Ogasuneko Manuela Escribano Sailburuorde andrearen arteko bilera Eusko Jaurlaritzaren egoitzan.

23 Idazkari nagusiak Nafarroako Unibertsitatean "Lan-merkatuaren erreforma"ri buruzko jardunaldian esku hartu du.

28 Presidenteak Prebentzioko Kulturaren Nazioarteko Behatokiaren (OBINTCP) aurkezpenean esku hartu du.

## UZTAILA

1 Argazkigintzako Javier Aguirresarobe Zuzendariak, eta marrazkilaria eta Kukuxumuxu enpresaren sortzailea den Mikel Urmeneta jaunak, Lehendakaritzaren egoitzan "Euskal Sari Unibertsala 2009" saria jaso dute, Euskal Herriaren irudia mugaz haraindi hedatzeagatik. Saria banatzeko ekitaldian Presidenteak esku hartu du.

6 Presidenteak OSALANek egiletsitako Laneko Arriskuen Prebentziorako IV. Saria banatzeko ekitaldian esku hartu dute.

Euskadiko EGABren egoitzan Presidentearen eta Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko Javier Ruiz Sailburuorde jaunarekin bilera egin da

7, 8, 9 "Gizarte- eta ekonomia-egoera eta lan-egoera Espainian". Presidenteak eta Idazkari Nagusiak Espainiako EGABek UIMPean antolatutako ikastaroan esku hartu dute.

15 Presidentea Kulturako Blanca Urgell Sailburu andrearekin bildu da.

Presidentearen eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Isabel Celáa Sailburu andrearen arteko bilera.

19 Presidenteak Patxi López jaunak Europa Forumean eskainitako konferentzian esku hartu du.

Presidentearen eta Lehendakariaren eta Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailburuaren arteko bilera.

22 Presidentea Justizia eta Herri Administrazioaren Idota Mendia Sailburu andrearekin bildu da.

26 Presidentea eta UNIPORTeko Inmaculada Ugarteche Zuzendari Nagusi andrearen arteko bilera.

## IRAILA

| | |
|---|---|
| 1 | Presidentea eta Idazkari Nagusia, Osasun eta Kontsumoko Rafael Bengoa Sailburu jaunarekin bildu da. Horrez gain, bileran Osasuneko Jesús Mª Fernández Sailburuorde jaunak eta Kalitate, Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Olga Isabel Ribera Sailburuorde andreak parte hartu dute. Lakua. |
| | Hauen arteko bilera: Presidentea eta Idazkari Nagusia, Industria eta Berrikuntzako Bernabé Unda Sailburua. Horiez gain, hauek ere parte hartu dute: Kabinete, Plangintza eta Estrategiako Pedro Gómez Sailburuorde jaunak, Berrikuntza eta Teknologiako Juan Ignacio Goicolea Sailburuorde jaunak, Industria eta Energiako Xavier Garmendi Sailburuorde jaunak eta Merkataritza eta Turismoko Pilar Zorrilla Sailburu andreak. |
| 8, 9, 10 | "Ongizate egoera segadan", Nafarroako Euskal Aurrezki Kutxen Federazioak antolatutako ikastaroa EHUren Udako Ikastaroen esparruan. Presidenteak esku hartu du. |
| 13 | Presidenteak EHUren 2010/2011 ikasturtea irekitzeko ekitaldi ospetsuan parte hartu du. |
| 14 | Presidentea eta Idazkari Nagusia Ekonomia eta Aurrekontuetako Andrés Araujo Sailburuordearekin eta Aurrekontuetako Mercedes Fernández Zuzendari andrearekin bildu dira. |
| 17 | Europa Foruma. Presidenteak Iñigo Urkulluk eskainitako konferentzian esku hartu du. |
| 24 | Idazkari Nagusiak Nueva Economía Fórumek antolatutako informaziorako gosarian esku hartu du. Halaber, Arabako Xabier Aguirre diputatu nagusiak esku hartu du. |

## URRIA

| | |
|---|---|
| 1 | Eusko Jaurlaritzaren Artxibo Orokorraren inaugurazioa. Presidenteak esku hartu du. |
| 4 | Presidenteak Euskal Herriko Alderdi Popularraren Antonio Basagoiti lehendakariarekin batera informazio-gosarian parte hatu du, Nueva Económia Fórumek antolatuta. |
| 5 | Presidentearen eta Idazkari Nagusiaren eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren Finantza Arloko Miguel Bengoechea Zuzendari jaunaren arteko bilera. |
| 14 | Eusko Jaurlaritzaren Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Bernabé Unda Sailburuak Nueva Económia Fórumek antolatutako informazio-gosarian parte hartu du. Presidenteak esku hartu du. |

15 Presidenteak urte judizialaren irekiera-ekitaldian esku hartu du. Euskal Herriko Justizia Auzitegi Nagusiaren egoitzan, Bilbon

18-19 "Ekin 2010. urteari" - Eusko Jaurlaritzaren Industria, Merkataritza eta Turismo Sailak antolatutako Ekimenaren Foro Nazionalak antolatuta. Presidenteak esku hartu du.

21 Presidentea eta Idazkari Nagusia Araubide Juridikoko Amaia Ortiz Sailburuorde andrearekin eta Legegintzaren Garapen eta Arauketaren Kontroleko Ion Gurutz Echave Zuzendari jaunarekin bildu dira.

25 "Finantza-merkatuak EBn". Presidenteak Bilboko Merkataritza Ganberan eskainitako konferentzian esku hartu du.

Gernikako Estatutuaren XXXI. Urteurrena. Presidentea Lehendakariak Ajuria Enea Jauregian eskainitako harrerara gonbidatua izan da.

28-29 Presidenteak eta Idazkari Nagusiak Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzorde Autonomikoen 2010eko Urteko II. Topaketan parte hartu dute.

## AZAROA

2 EAEren 2009ko Memoria Sozioekonomikoaren ematea eta aurkezpena. Presidenteak eta Idazkari Nagusiak Eusko Legebiltzarraren Presidentearen aurrera bertaratu dira, eta ostean prentsaurrekoa eskaini da.



| | |
|---|---|
| 4 | Idazkari Nagusiak Arabako Emakume Enpresari, Profesional eta Zuzendariari emandako 2010eko AMPEA sariak banatzeko ekitaldian esku hartu du. |
| 8 | Gipuzkoako Batzar Nagusietako Rafaela Romero Presidente andreak Nueva Económia Fórumek antolatutako informazio-gosarian parte hartu du. Presidenteak esku hartu du. |
| 26 | Presidenteak Nueva Económia Fórumek antolatutako informazio-gosarian Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako Pilar Unzalu Sailburu andrearekin batera parte hartu du. |

ABENDUA

| | |
|---|---|
| 10 | 2015eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Plana bultzatzeko topaketa. Presidenteak esku hartu du. |
| 14 | Presidenteak Antonio Basagoiti jaunak Euskaltzaindiaren egoitzan adierazitako “Euskararen aukerak XXI. mendean" konferentzian esku hartu du. |
| 16 | Euskadiko Buruzagitzari buruzko II. Topaketa, Alfredo Sáenz jaunaren esku-hartzearekin, Santander Bankuaren Presidenteorde-Sailburu ordezkoa eta Deustuko Business School Administrazio Kontseiluaren Presidentea dena. Presidenteak esku hartu du. |

## 2. Agerraldiak

2010ean ondorengo agerraldiak izan dira EGABren organo eta batzordeen aurrean:

### 2010eko otsailak 24, EGABren egoitza

EGABren Batzorde Iraunkorrean Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailaren Enplegu, Prestakuntza eta Gizarteratzeko Javier Ruiz Sailburuorde jaunak esku hartu du, EGABren erreformari eta CRLrekiko harremanei buruz hitz egiteko.

### 2010eko apirilak 21, Euskalduna Jauregia

EGABren osoko bilkuran Ekonomia eta Ogasuneko Carlos Aguirre Sailburu jaunak esku hartu du, 2011ko aurrekontu orokorrak aurkezteko.

### 2010eko maiatzak 6, EGABren egoitza

Osoko bilkuran Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Bernabé Unda Sailburu jaunak esku hartu du, Sail horren planak azaltzeko. Orobat, Kabinete, Plangintza eta Estrategiako Pedro Gómez Sailburuorde jaunak eta Prentsa Kabinetearen Eduardo Ortiz de Arri aholkulari jaunak parte hartu dute

## 2010eko irailak 15, EGABren egoitza

Drogazaletasun Sailaren Celina Pereda Zuzendariak Gizarte Garapenerako Batzordean parte hartu du, EGABek drogazaletasunaren prebentzioari, laguntzari eta gizarteratzeari buruzko Legearen hirugarren aldaketaren Lege Proiektuari buruz egindako lanak direla medio.



## 2010eko azaroak 5, EGABren egoitza

Garapen Ekonomikorako Batzordean Ogasun eta Finantzako Manuela Escribano Sailburuordeak esku hartu du, Borondatezko Gizarte Aurreikuspeneko Erakundeei buruzko Legearen Aurreproiektua aurkezteko.



## 2010eko azaroak 11, EGABren egoitza

Gizarte Garapenerako Batzordean Administrazio eta Zerbitzuetako Ernesto Martínez de la Hidalga Sailburuorde jaunak eta Araubide Juridiko eta Zerbitzu Sailaren Iñaki Calonge Zuzendari jaunak esku hartu dute, Euskadiko segurtasun publikoaren sistemaren Antolamendu Legearen Aurreproiektua aurkezteko. Horiez gain, Aholkularitza Juridikoko Eugenio Artetxe buru jaunak parte hartu du.

## 2010eko abenduak 9, EGABren egoitza

EGABren osoko bilkuran Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailaren Bernabé Unda Sailburu jaunak esku hartu du, 2010-2013 epealdiko enpresaren Lehiakortasunerako Plana azaltzeko. Gainera, Kabinete, Plangintza eta Estrategiako Pedro Gómez Damborenea Sailburuorde jaunak eta Plangintza eta Estrategia Sailaren Inmaculada Freije Zuzendari andreak parte hartu dute.



# IV. KAPITULUA

# Jarduera Europaren lankidetza esparruan

## 1. Aldebiko Lankidetza Akitaniako CESRrekin

Euskadiko EGABek Bialdeko lankidetza du Conseil Economique et Social Régional d´Aquitaine batzordearekin, eta horrenbestez, elkarrizketa etengabea izateaz gain, EAEn eta Akitanian interesgarriak diren gaiei buruzko ikuspegi partekatua garatu ahal izango dute.

2004. urtean lehenengo lan-batzordea ezarri zen, bi EGABetako kideekin osatuta. Kasu horretan, Akitaniaren eta EAEren hurbileko turismoa bultzatzeko gaia jorratu zen, betiere iraunkortasun-irizpideekiko errespetuarekin, bai eta EAEren eta Akitaniaren artean bestelako merkatuei begira turismo-oferta erkidea ezartzeko gaia ere.

2007. urtean jarduera orokor berriak abian jarri dira, garraioaren eremuan lan-ildoari ekinda, batik bat, Akitaniaren eta EAEren arteko ondasunen nahiz pertsonen zirkulaziorako eragozpenak ezabatzeko konponbide- eta hobekuntza-proposamenak egiteko, betiere trafiko askoko mugaz gaindiko ingurunean, Europaren eta Iberiar Penintsularen arteko harremanei eusteko giltzarria, alegia. Arazo ezberdinak identifikatuko dira, hots, ildoak, zerbitzuak, azpiegiturak, barneko jarduketak eta barneko modalitatea, eta identifikatutako arazoak konpontzeko proposamenak identifikatuko dira.

2009. urtean bidaiarien hurbiltasun-garraioari buruzko agiria aurreratu da, eta 2010. urtean merkatugaien garraioaren eremuan modu sakonean lan egin da.

Gisa bertsuan, Euskadiko EGABek eta Akitaniako EGABek Europako Batzordeak irekitako kontsulta-prozesuan parte hartu dute, **Garraioaren Europaz gaindiko Sare Politikoen Berrikuspenari (RTE-T)** buruzkoan. 2009ko Liburu Berdeari egindako ekarpenaz gain, 2010. urtean 2010eko maiatzaren 4ko Kontsulta Agiriari egindako ekarpena nabarmendu behar da.

Oro har, bi EGABek kapitulu metodologikoaren gehiegizko izaera teorikoa eta orokorra nahiz etorkizuneko RTE-Tren ezaugarriei buruzko definiziorik eza nabarmendu dute. Horien ustez, beharrezkoa da azpiegituren politikak erantzun beharreko garraioaren beharrizanei buruzko diagnostikoa egitea, eta horrek garatu beharreko xede politikoak eta estrategikoak, bai eta Liburu Berdearen osagai nagusiak biltzea ere, merkatugaien garraiorako bulkada gisa, edo energiaren nahiz klima-aldaketaren oharrak ere. Azkenean, garraioen Europaz gaindiko sarea finantzatzeko proposamen zehatzak eskatzen dute, are konplexuagoa, aurrekontuen murrizketa irmoen gaur egungo testuinguruan.

Lanen gaineko Euskadiko EGABren Lantalde arduradunak egindako bilerez gain, Euskadiko EGABren eta Akitaniako CESRren ordezkaritzen Baterako Lan-batzordea Bordelen urtarrilaren 21ean eta 22an eta Hondarribian irailaren 21ean eta 22an bildu dira:

### Bordele, 2010eko urtarrilak 21 eta 22

Bileran Réseau Ferré de France, RFF, eta Frantziako Garraioen Eskualdeko Zuzendaritzako ordezkariek parte hartu zuten. Hain zuzen ere, hurrenez hurren, Frantziako eta Espainiako Batzordeek Euskal Y linea eta abiadura handiko Frantziako etorkizuneko linea bat egiteko lana aurkeztu zuten, bai eta mugaz gaindiko garraio-fluxuen datuak ere. Abiadura handiko trenbide-linea berriarekiko airea/trenbidea barneko modalitatea antolatzeko Bordeaux-Mérignac aireportuaren arduradunen entzunaldia eta "Euroatlantique" proiektuari egindako bisita Bordeleko Gare Saint Jeanen, inguruneko eraldaketa ekonomikora zuzenduta hirira azpiegitura berri hori iristeko uneari dagokionez, topaketan garraio-eremuan eskainitako programazioa osatu zuten. 2009ko azaroan Eusko Jaurlaritzak eta Akitaniak Euroeskualdea Euskadi-Akitania eratzeko Adierazpen Orokorra sinatu zuten, eta jardunaldietan arreta berezia eman zitzaion.



### Hondarribia, 2010eko irailak 21 eta 22

Bileran funtsean entzunaldiak eskaini ziren, horien artean, Transvisions Estudioaren 2030 eta 2050 urteetarako trafikoen proiekzioen aurkezpena, Europako Batzordeak garraioaren Europako etorkizuneko politikak aginduta, eta EAEko bideen nahiz lurreko azpiegituren bilakaeren proiekzioen aurkezpena, bereziki, Euskal Y linea eta Donostialdeako metroa, Eusko Jaurlaritzako ordezkarien eta Euskadiko trenbide-azpiegituren (ETS) organo kudeatzailearen mende. Eusko Jaurlaritzaren eta Akitaniako aurrerapenak Euroeskualdea Euskadi-Akitaniaren eraketari begira eta bertan bi eskualdeetako EGABek izandako parte-hartzea eztabaidaren xede izan dira.

Bilera egin aurretik, Pasaiako portua bisitatu zuten.

## 2. Lankidetza Espazio Atlantikoan

### NAZIOZ GAINDIKO SARE ATLANTIKOA. RTA/ATN

Euskadiko EGAB Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeen Plataformako kidea da, bai eta Espazio Atlantikoaren eskualdeetako antzeko erakundeena ere, Nazioz Gaindiko Sare Atlantikoa izenekoa. Horren xedea eskualde atlantikoen lehiakortasuna nahiz gizarte- eta lurralde-kohesioa sendotzera bideratutako eskualdeen arteko lankidetzarako proiektuak eta politikak proposatzea da, baita atxikipen atlantikorako interes orokorreko gaien azterketa eta analisia ere, ostean erabakia hartu behar duten organo egokiei helarazteko, bereziki, Europar Batasunari. Gainera, hauek ere sarea osatzen dute: Kantabriako, Kanarietako, Akitaniako, Poitou-Charentesko, Pays-de-la-Loireko, Bretainiako, Behe Normandiako, Limousineko eta Erdiko Eskualdeko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeak, Galesko Foro Ekonomikoa, eta Soldadura e Qualidade Institutuak (ISQ)..



Laneko gai gisa, 2008. urtetik aurrera **Itsasoko Energia Berriztagarrien** inguruan lanean dihardute, potentziala erabat garatzeko eragozpen teknologikoak, gizarte-trabak, ekonomikoak, juridiko-administratiboak eta ingurumenekoak jorratuta. Atlantikoak aparteko haize-baliabideak ditu, undimotrizeak eta ustiatu gabeko korrontekoak, horiek lotutako ekonomia- eta industria-garapenera jorratzeko aukera handia eta energia garbiaren nahiz autoktonoaren iturria izanda. Lan hori RTAk azaroaren 10ean egindako bilkuran onartu zen eta Bordelen Europako Parlamentuan aurkeztu zen. Europako Erakunde-bilbearen ondoriozko entzunaldian, RTAk itsasoko energia berriztagarriak bikaintasunarekin garatzeko proposatutako ondorioak eta gomendioak azaldu zituen, eta gaur egun azaleratutako egoera, egindako lanaren ondoriozkoa da. EGABren txostenean, berebat, aurretik dauden itsasoko energia

berriztagarrien proiektuen bilduma xehatua edo eskualde atlantikoetan garapen-prozesuan murgilduta daudenena jasotzen da.

2010. urtean, RTAk **Europako Estrategia Atlantikoaren** inguruan ere lan egin du, Europako Batzordeak igorritako kontsulta-prozesuari ekarpena egiteko, Europako eskualde handien espazio horri buruz lan-programa egiteko, batik bat, Europaren eta lankidetzaren ikuspegitik, itsasoarekin zerikusia duten erronkak eta arazoak jorratu ahal izateko. Espazio atlantikoaren unitatea eta berezitasuna, aldi berean, periferiaren, eta Europako gune ekonomikoekiko urruntasunaren eta konexio gabeziaren ondoriozkoa izan da, bai eta itsas izaeraren eta munduko gainerako tokiekiko irekieraren ondoriozkoa ere. RTAk identifikatutako jarduketa-eremu lehenetsiak hauek dira:

- Itsas garraioa eta lurraldeen konexioak
- Itsasoaren baliabideen balioa aintzat hartzea
- Atlantikoa Europarako sarbide gisa eta Afrika eta Amerikarako azken sarbide gisa
- Funtsezko itsas baliabidearen ezagutzari buruzko ikerketaren, berrikuntzaren, eraketaren eta hedapenaren garapena, hori artatu eta ikuspuntu ekonomikotik baloratzeko
- Ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren garapena, garapen iraunkorraren giltzarri gisa

Agiria Europako Batzordeari azaroaren 10ean eman zitzaion.

Azaroan, RTAren organoen errelebua egin da. Luc Paboeuf, Akitaniako EGABren Presidentea, Kantabriako EGABren Pablo Coto Presidentearen ordez ezarri da, RTAren presidentziari dagokionez. Pablo Egeriquek, Galiziako EGABren Presidenteak 2. presidentziaordetza bere gain hartuko du, eta ISQ-ko Joao Paulo Duartek 2. presidentziaordetza bere gain hartuko du. 2010. urtean, bi presidentziaordetza gehigarri gidatu dira, eta lanpostu horietarako Euskadiko EGABren Juan Mª Otaegui Presidente jauna eta Limousineko EGABren Jean Pierre Limousin Presidente jauna izendatuko dira.

## RTAren BILERAK 2010. URTEAN

Erabakiak hartzeko RTAren goi mailako organoek, bai Batzorde Exekutiboak, Bureauk, Osoko Bilkurak eta Orientabideen Batzordeak, bilera hauek egin dituzte:

### Madril, 2010eko ekaina. Bilera RTAren Bureaurekin

Bureauk azaroaren 10eko orientabideen batzordearen prestaketa egin zuen, bai eta Bruselan atlantikoko itsasoko energia berriztagarriei buruz egindako azterketaren aurkezpenaren antolakuntza ere.

### Telekonferentzia, 2010eko abenduak 20. Bilera RTAren Bureaurekin

Bureauk hurrengo orientabideen batzordea prestatu zuen, bai eta 2011ko martxoan egin beharreko hausnarketari buruzko mintegia ere, eguneko gai-zerrenda osatuko duten gaiak eta antolakuntza-alderdiak ezarrita.

### Santander, 2010eko martxoak 25. Orientabiderako Batzordearen bilera

Erabakiak hartu eta orientabide estrategikoa gauzatzeko RTAren goi mailako organoak itsasoko energia berriztagarriei buruzko Lantaldeak egindako azterketaren inguruko ondorioak eta gomendioak adostu zituen, eta halaber, garatutako kapitulu ezberdinen laburpen-txostenak amaitzeko mota erabilgarriak ezarri zituen.
Barne-antolakuntzari buruzko gaiak eztabaidatu zituen, Batzorde Exekutiboa handituta, Frantzian eta Espainian bigarren lehendakaritzaordetza sortuta. Izan ere, Galiziako EGABren Pablo Egerique Presidenteak eta Limousineko EGABren Jean Pierre Limousin Presidenteak beteko dituzte.

### Brusela, 2010eko azaroak 10. Orientabiderako Batzordearen bilera

RTAren lehendakaritzaren errelebua egin da, eta Bureauko kideak berriztatuko dira aurretik izendatutakoekin.
Itsasoko energiei buruzko lanaren txosten osoa modu formalean onetsi zen, eta era berean, RTAk Europar Batasunaren kontsulta-prozesuari Europako Estrategia Atlantikoari buruz egindako ekarpena onetsi zen.

### ► Itsasoko Energia Berriztagarriei buruzko lantaldea

Taldea 2008. urtean Orientabiderako Batzordearen bidez eratu zen, eta lanak aurtengo ekainean abian jarri ziren. Lanen xedea eskualde atlantikoetan dauden itsasoko energia berriztagarrien garapenari begira sor daitezkeen eragozpenak identifikatzea da: eragozpen juridikoak, administratiboak, ekonomikoak, gizartekoak eta ingurumenekoak, bai eta horiek gainditu nahiz ia aztertu gabeko potentzial atlantikoaren energia eta gizartea nahiz ekonomia aprobetxatzeko gomendioak definitzea ere.
Euskadiko EGAB azterlanaren hizlari izendatu zen, Akitaniako EGABrekin batera, Taldeak 2010ean 2 bilera zenbatu ditu: Bordelen, otsailaren 19an, eta Konpostelako Santiagon, maiatzaren 27an.
Euskadiko EGABren ordezkaritza Lantaldean modu honetan adierazi da:
Titularra: Arantza López de Munain, RTAren koordinatzailea.
Adituak: Ignacio Barrenechea eta Roberto Bermejo, D Taldeko batzordekideak.

### ► Europako Estrategia Atlantikoari buruzko lantaldea

Taldea 2010eko udazkenean Batzorde Exekutiboaren bidez eratu zen, eta lanak urrian abian jarri ziren. Lanen xedea RTAn bildutako eskualde atlantikoen ekonomia- eta gizarte-eragileek Europako Estrategia Atlantikoari buruzko Europako Batzordearen DG MAREk igorritako kontsulta-prozesuari ekarpena egitea da, estrategia horren erantzun beharreko funtsezko erronkak ekarrita. Estrategia Atlantikoa egin eta hori abian jartzea ibilbide luzeko prozesua da, eta hori ez da agortzen kontsultaren prozesuarekin. Gainera, Lantaldeak modu aktiboan parte hartu ahal izango du.

Akitaniako EGAB lanen hizlari gisa izendatu zen, eta urriaren 22an Parisen bilera egin zuen.
Euskadiko EGABren ordezkaritza Lantaldean modu honetan adierazi da:
Titularra: Arantza López de Munain, RTAren koordinatzailea.
Adituak: Ignacio Barrenechea eta Roberto Bermejo, D Taldeko batzordekideak.

## ARKU ATLANTIKOKO BATZORDEA

Aberdeenen, irailaren 29an egindako batzar nagusietan parte hartu zuen; horietan, estrategia atlantikorako prozesua aztertu zuten, bai eta bertan eskualdeen foro atlantikoen parte-hartzea ere, Europako Batzordeak Baltikoko Itsasorako dagoeneko egindakoaren antzera, erabatean eta anbizio handiz erantzuteko geografia-gune honetako erronkei, garraioari, itsas segurtasunari, ingurumenari, ikerketari, berrikuntzari, energiari eta arrantzari dagokienez. Arku Atlantikoko Batzordearen 50. urteurrenean, denboraldi horretan garatutako jardueraren balantzea egin ahal izan zen, eta, bertan, erakunde honek gero eta dinamismo eta eragin handiagoa duela nabarmendu zen.

2008. urteaz geroztik, lankidetzarako formulak gauzatu dira, Arku Atlantikoko Batzordearen eta RTAren artean; horrela, sareko lana sustatzen da, dauden agente atlantikoen artean, eta RTA sartzen da Arku Atlantikoko Batzordearen Koordinazio Lantaldean eta bere lantaldeetan parte hartzeko.

Euskadiko EGABek RTAren ordezkari gisa parte hartzen du garraio-arloko eta itsasoko energia berriztagarrien arloko lantaldeetan.

2010. urtean, Euskadiko EGABek *Arku Atlantikoko Batzordearen Garraio lantaldeak* egindako bileretan parte hartu du, Bruselan, martxoaren 17an, eta, Lisboan, ekainaren 24an. Bilerek aukera eman dute politikak eta proiektuak ezagutzeko, eskualde kideen garraioari buruzkoak, bai eta egungo erkidegoa garraioari dagokionez aztertzeko ere; halaber, Europako lankidetza-proiektua prestatzeko aukera ere eman dute, Atlantikoko korridorean plataforma logistikoen sarearen eraginkortasuna hobetzeko. Aldi berean, Arku Atlantikoko Batzordearen laguntzarako foroa egin da, alegia, Europako Batzordeak maiatzaren 4ko Europa barneko garraio-sareen berrikusketaren kontsulta-agiriaren gainean antolatutako kontsultarako laguntza-foroa.

Euskadiko EGABek, halaber, *Arku Atlantikoko Batzordearen Itsasoko Energia Berriztagarrien Lantaldea* osatzeko bileran ere parte hartu du, Santanderren, abenduaren 1ean. Lantalde honek erkidegoko eta nazioko aginteei jakinarazi beharko dizkie politika publikoei eta araudiei buruzko proposamenak, sektore sortu berria sustatzeko eta eskualde parte-hartzaileen arteko lankidetza-proiektuak garatzea sustatzeko. Santaderreko bileran, Interreg Espazio Atlantikoko proiektua prestatzea eztabaidatu eta erabaki zen, energia eoliko flotatzailea, olatuena eta korronteena sustatzeko, diziplina artekoa eta sektore askokoa.

- **EUROPAKO ITSASOKO ESKUALDE PERIFERIKOEN HITZALDIA ETA ARKU ATLANTIKOKO BATZORDEA**

Europako itsasoko 157 eskualderen elkartea, Europar Batasuneko garapen orekatua sustatzeko, eskualde horien aktibo komunen balorazioaren bidez; halaber, eskualde horiek Europako integrazio-prozesuan inplikatzeko eta Europako aginteak sentsibilizatzeko, itsasoko eta periferiako eskualdeen zehaztasun eta beharrei dagokienez Europako integrazioaren testuinguruan.

Sei geografia-batzordetan antolatzen da, eta horietako bat Arku Atlantikoko Sarea da. Horietako kide formalak dira kide egindako eskualdeetako agintarien ordezkariak, eta 2008tik eskualdeetako Ekonomia eta Gizarte Batzordeek lankidetza-formulak egin dituzte, RTAren bidez; horretarako, Batzar Nagusian, Koordinazio Lantaldean eta lantaldeetan parte hartu dute.

Euskadiko EGABek CRPMren Batzar Nagusian parte hartu zuen, irailaren 30ean eta urriaren 1ean, Aberdeenen, eta bertako eztabaidak, batik bat, 2013tik haratago Europako eskualdeko politika berria garatzeari, itsasoko politika integratuari eta Presidentzia berriaren lan-programari buruzkoak izan ziren (Bretainiako Eskualde Presidentea den Yves le Drien izendatu zuten Presidente).

Euskadiko EGABek CRPMren beste jarduera batzuetan ere parte hartu du, besteak beste: itsasoko energia eoliko flotatzaileari buruzko hitzaldian, "Sea of Innovation", abenduaren 2 eta 3koa, Santanderren egindakoa.

## 3. Lankidetza Europako bestelako Ekonomia eta Gizarte Batzorde batzuekin

- **LANKIDETZA EUROPAKO EKONOMIA ETA GIZARTE BATZORDEAREKIN (CESE)**

Martxoaren 23an eta 24an, Europako Ekonomia eta Gizarte Batzordeak jardunaldi batzuk egin zituen, Euskadiko EGABen, Latinoamerika osoko sozietate zibilaren ordezkariekin batera; horiek CESE-Latinoamerikaren seigarren topaketaren atarikoak izan ziren. Topaketa hori, maiatzean egin behar zen, Madrilen, eta Europako eta Latinoamerikako sozietate zibilak EBko estatuburu eta gobernuburuen goi-bilerari egindako gomendioak onetsi behar ziren (gerora, Latinoamerikari eta Kariberi).
Ekitaldietan, Europako EGABeko eta Euskadiko EGABeko batzordekideak eta Latinoamerikako sozietate zibileko ordezkariak egon ziren.

Lehenengo jardunaldian, adierazpen-proposamena egin zen; bigarrenean, EBren eta Latinoamerikaren arteko harremanen gainean eztabaidatu zen. Bi jardunaldi horietan, parte-hartzaileek gomendioak egin zituzten, Latinoamerikarako oso kontu garrantzitsuen gainean, bai eta gizarte-kohesioaren, eskualdeko integrazioaren sakontzearen, lan egokiaren, migrazioen edo garapen iraunkorraren gainean ere.

Jardunaldien itxieran, Eusko Jaurlaritzaren Garapenerako Lankidetzako Zuzendariak parte hartu zuen, bai eta sozietate zibilarekiko harremanetarako Europar Batasuneko Espainiako presidentetzako enbaxadorea den Carlos Carnerok ere.

## FRANTZIA, ESPAINIA ETA ANDORRA LURRALDEETAKO LANKIDETZA-PROGRAMA, 2007-2013 (POCTEFA)

Euskadiko EGAB Frantzia, Espainia eta Andorra lurraldeetako 2007-2013ko Lankidetza Programaren Jarraipen Batzordeko kide da, Frantzia, Espainia eta Andorra 2007-2013ko mugaz bestaldeko eremuaren Lurraldeko Lankidetzako Programa Eragilean bertan eta Jarraipen Batzordeko barne-araudian ezarritakoari jarraiki; izan ere, horiek beren-beregi partaidetza erabakitzen dute, Euskal Autonomia Erkidegoko, Nafarroako, Aragoiko, Kataluniako, Errioxako, Akitaniako, Midi-Pyrénéesko eta Languedoc-Roussillongo Ekonomia eta Gizarte Batzordeak kontsultatzeko. Batzorde hau, gainera, honakoek ere osatzen dute: Pirinioetako komunitate-lanak, kudeatzeko aginpide gisa; Europako Batzordeak, kontsultatzeko; Frantziako eta Espainiako aginpideen ordezkaritza paritarioak, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroa, Aragoi, Katalunia eta Errioxa barne hartzen dituenak; Estatuko Administrazio Nagusiak; ingurumeneko aginpideen sareak. Frantziaren ordezkaritzan: Akitania, Midi-Pyrénées eta Languedoc-Roussillongo Eskualde Batzordeak, eskualdeko prefekturak, Ariège, Garona Garaiko, Pirinio Garaietako, Pirinio Atalantikoetako eta Ekialdeko Pirinioetako Batzorde Nagusiak, eta departamenduetako prefekturak, ingurumen-aginpidea eta Commissariat de Massif à l´Aménagement des Pyrénées. Zereginak, batik bat, honakoak dira: programaren helburuak lortzen diren aztertzea, kofinantzatzeko aurkeztutako proiektuak hautatzeko irizpideak aztertu eta onestea, gauzatu izanaren ondorioak aztertzea eta programaren berrikuspena proposatzea.

Horrela, Euskadiko EGABek Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu du:

### Jaka, 2010eko ekainak 23

Batik bat programaren aurrerapena oinarri duen bilera. Egiaztatzen da Batzordeak programaren kudeaketa- eta kontrol-sistemak onetsi dituela, eta horrek aukera emango du erkidegoko funtsen bitarteko ordainketak desblokeatzeko; halaber egiaztatzen da kezkatuta daudela, kontu-ikuskaritzako agintearen jarduerarik ezagatik, bigarren mailako kontrolari dagokionez, berriro funtsen blokeoa ekar lezakeelako. Era berean egiaztatzen da proiektu gutxi egin dela, eta horiek programatik kentzeko aukera proposatu da eta funtsak proiektu berriei esleitzea.
Aldaketak tratatzeko metodoa hartu da eta programaren In Itinere ebaluazioa egitea adjudikatzen da.

### Bagnères de Luchon, 2010eko urriak 27

In Itinere ebaluazioari buruzko txostena bileran aurkeztu eta eztabaidatu da, eta egiaztatu da bertan jasotako gomendioen etorkizuneko lanari buruzko interesa eta proiekzioa. Zenbait neurri hartu dira, POCTEFAren bigarren deialdia bideratzeko, programatik kendu beharreko proiektuak identifikatzeko eta kontu-ikuskaritzako agonteari dagokion bigarren mailaren kontrola ezartzeko (IGAE).

# V. KAPITULUA

# Giza-baliabideen eta baliabide materialen kudeaketa

## 1. 2010eko aurrekontua

Ekonomia eta Gizarte Batzordearen 2010erako gastu-aurrekontuak 2.218.596,54€-ko zuzkidura aurkeztu zuen, eta zenbatekoa 1.766.167,75€-tan finantzatu zen, EAEko Aurrekontu Orokorren kargura, 437.928,94€ aurreko ekitaldietako gerakinen kargura eta finantza-sarreren kargura.

2010erako gastuen eta sarreren aurrekontu arrunta honako kapitulu handietan banatu zen:

| | AURREKONTUAN AZALDUTAKOA | GAUZATUTAKOA | MAILA |
|---|---|---|---|
| **2010eko GASTUAK** | **2.218.596,54** | **1.577.460,75** | **71,10%** |
| I. Kapitulua- Langile-Gastuak | 883.222,23 | 662.149,28 | 74,97% |
| II. Kapitulua- Funtzionamendu-Gastuak | 1.003.900,63 | 614.116,43 | 61,17% |
| III. Kapitulua – Finantza-Gastuak | 60,00 | 0,00 | 0,00% |
| IV. Kapitulua- Transferentziak eta diru-laguntzak. Gastu arrunta. Transferentziak (Kideak) | 301.413,68 | 287.625,85 | 95,43% |
| VI. Kapitulua- Inbertsioak | 30.000,00 | 13.569,19 | 45,23% |
| **2010eko SARRERAK** | **2.218.596,54** | **1.577.460,75** | **71,10%** |
| IV. Kapitulua- Transferentziak eta diru-laguntzak. Gastu arrunta. | 1.765.667,60 | 1.766.167,60 | 100,31% |
| --- Eusko Jaurlaritza | 1.765.667,60 | 1.766.167,60 | 100,03% |
| V. Kapitulua- Ondare-sarrerak. Finantza-sarrerak | 15.000,00 | 9.626,40 | 64,18% |
| Aurreko ekitaldietako gerakinak | 437.928,94 | -203.238,30 | |

Aurrekontuaren likidazioaren datuak 2010eko ekitaldiko likidazioari dagozkio, eta, argitaratzeko unean, urteko kontu-ikuskaritza egin beharra daukate.

Gastuak likidatzeko eboluzio historikoa erakundearen aurrerapen eta finkapenetik ondorioztatzen da, bai eta kontsultatzeko zereginetik ere:







## 2. Batzordearen langileak

Euskadiko EGABren zerbitzura dagoen plantilla, Presidenteaz eta Idazkari Nagusiaz gainera, hainbat lan-arlotako bederatzi pertsonak ere osatzen dute:

- 3 Azterlan eta Proiekturen Arduradun
- 1 Administrazio eta Zerbitzuetako Arduradun
- 1 Zuzendaritzako Idazkari
- 3 Administrari
- 1 Administrari Laguntzaile

## VI. KAPITULUA

# Komunikazioa, dokumentazioa eta argitalpenak

# 1. Komunikazioa

## BULETINAK

2008ko abenduan, Euskadiko EGABren bihileko informazio-aldizkaria aurkeztu zen. EGABren jarduera hedatzeko tresna da, eta erakunde horren iritziak pertsona-kopuru handiagora iristeko tresna garrantzitsua da. Argitalpenean ekonomia- eta gizarte-informazio esanguratsua eta gaur egungoa jaso da, bai abagunearen ikuspuntutik bai egituraren ikuspuntutik, bai eta Batzordearen jarduerari buruzko laburpenak eta Europako lankidetzaren inguruko zeregina ere.




Hona hemen ekonomiaren eta gizartearen ekonomiaren artean aipagarriena: lan-merkatuaren adierazleak, gizartearen babeserako hezkuntza…; industriaren ekoizpenerako indizeak, merkataritzakoak, eta prezioak, kostuak eta ekoizgarritasuna; I+G+b; ingurumena (ur-kontsumoa, energiaren kontsumoa, BEGen igorpenak…); garapenerako lankidetza; gastu publikoa eta zerga-bilketa, gizarte-zerbitzuak; demografia eta immigrazioa; etxebizitza; etorkizuneko ekonomiaren proiekzioak…

Hedapena egiteko hiru bide daude: posta arrunta, posta elektronikoa eta web orria

## EGUNEROKO PRENTSAREN LABURPENA

2010eko abenduan abian jarri zen prentsako edukien jarraipen-zerbitzu berria, Euskal Ekonomia eta Gizarte Batzordearentzako informazio-mailako intereseko edukietarako.

Albisteak informatika-bitartekoen bidez bilatzen dira, Batzordearen intereseko gaiak ahalik eta modurik zehatzenean jorratzeko zehaztutako deskribatzaileak kontuan hartuta.
Horrela bildutako edukiak Euskadiko EGABren eskura jartzen dira, online plataformako arlo pribatu batean, gero horiek tratamendua egiteko.
Behar bezala hautatu eta antolatu ondoren, egunero, posta elektronikoz, Batzordea osatzen dutenei eta horren zerbitzura dauden langileei horien laburpena bidaltzen zaie.

## PRENTSAREN URTEKO TXOSTENA

Prentsan, irratian eta telebistan Batzordearen jarduerei buruz zabaldu diren informazio guztiak biltzen ditu. Eduki horrekin, urtero, Euskadiko EGAB hedabideetan agertu deneko txosten kronologikoa egiten da.

## EGABren JARDUERA HEDABIDEETAN

### PRENTSAURREKOAK

**2010eko urtarrilak 21, Bilbo**
Prentsa-deialdia, Euskadiko EGABek antolatutako hitzaldien zikloa dela eta, seigarren edizioan, Emilio Ontiveros ekonomia- eta finantza-analistaren hitzaldiarekin: "Crisis económica. Singularidad y alcance ¿Es la Ley de Economía Sostenible la respuesta?".

**2010eko otsailak 17, Bilbo**
Euskadiko EGABeko batzordekide berrien kargu-hartzea.
EGAB berriztatzeko prozesuarekin jarraitzen da hurrengo egunean, batzordekide berriek kargu hartzeko, adituen taldea osatuko duten pertsonak hautatuko direla.

**2010eko martxoak 12, Bilbo**
Euskadiko EGABek 2009ko Jardueren Txostena aurkeztu du, aurreko ekitaldian EGABren jarduera biltzen duena. Lehendakariak, José Luis Ruizek, garatutako lanaren eta aurreko urtean erakundean gertatutakoaren balorazioa eskaini du.

**2010eko azaroak 2, Eusko Legebiltzarreko prentsa-aretoa**
Euskadiko EGABek 2009ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu du. Agiriak euskal ekonomia- eta gizarte-egoera aztertzen ditu, eta kontsultarako erakundea osatzen duten ekonomia- eta gizarte-eragileek partekatzen duten diagnostikoa eskaintzen du.



## PRENTSA OHARRAK

2010. urtean, hedabideei, adierazitako egunetan, 26 prentsa-ohar bidali zitzaizkien, EGABren jarduerak eta lana zabaltzeko.

### 2010eko urtarrilak 21

Prentsa-oharra, Euskadiko EGABren tribunaren VI. edizioa dela eta. Emilio Ontiverosek egoera hau honela definitu du: “azken hamarkadotako krisi paregabea". Halaber, lan-merkatuko desorekek banku-egonkortasunean duten eraginaz ohartarazi du. Olivaresen ustez: “krisiaren finantza-dimentsioaren aldetik okerrena gainditu egin da, baina benetako dimentsioan epelkeria handiagoa da”, eta, halaber, gogorarazi du Espainiako ekonomiak atzeraldia izan zuela, aurreratutako ekonomien ondoren, “beraz, atzerapen handiagoz irtengo da”.

### 2010eko otsailak 17

Prentsa-oharra, batzordekide berrien kargu-hartzearen eta zortzi adituen proposamenaren berri emateko. Horrela, Euskadiko EGAB berriztatzeko amaieran sartzen da; José Luis Ruiz ordezkatuko duen Presidente berriaren kargu-hartzeaz amaituko da.

### 2010eko otsailak 24

Prentsa-oharra, EGABek Dekretu Proiektuaren gainean egindako aldeko irizpena dela-eta, Osakidetzako langile guztien lan-estatusa bateratzeko. Dauden enplegu-harremanen bateratzeak aukera emango du Osakidetzako giza baliabideen kudeaketa hobetu eta arrazionalizatzeko; 23.723 pertsona gehitzen ditu plantillan.

### 2010eko martxoak 6

Emakume Langilearen Egunaren aurreko egunetan, EGABek ohartarazi egiten du krisiak eten egiten duela emakumearen presentzia lan-merkatuan. Emakumeek hobeto jasaten dute atzeraldia, nahiz eta beren langabezia-tasak gora egin duen. Emakume gazteen langabeziak baino ez du gizonezko gazteenak baino egoera hobea. Batzordeak jakinarazten du emakumeek gizonek baino % 26 gutxiago kobratzen dutela eta jasaten duten tenporaltasun-tasa gizonezkoenaren hirukoitza dela.

### 2010eko martxoak 10

Prentsa-oharra, EGABren aldeko irizpenaren berri emateko, Eusko Jaurlaritzaren Dekretu Proiektuaren gainean, Diru-sarreren Bermerako Errenta arautzeko. EGAB ados dago, prestazioaren helburuarekin; ez, ordea, Dekretu Proiektuaren zenbait alderdirekin. Enpleguari integratzeko zeregin nagusia eta garrantzitsua ematearekin ados dago, eta ahalegina egiteko gomendioa ematen du, modu argiagoan aurkezteko Dekretu Proiektua; izan ere, egun duen idazketa zaila da.

### 2010eko martxoa 12

Prentsa-oharra, 2009ko Jardueren Txostenaren aurkezpena dela-eta: Euskadiko EGABek 2009. urtean lau irizpen eman zituen, hauteskundeek eta gobernu-aldaketak eragindako jarduera publikoaren etenaldia dela eta. Jarduerarik eza egon zenez, berezko ekimenaren azterlanak egin ziren, euskal gizarte- eta ekonomia-errealitateari buruzkoak eta eztabaida publikoen eztabaidekin. Batzordeak, urrian, bere 25. urteurrena ospatu eta egoitza berria estreinatu zuen.

### 2010eko martxoak 22

Zenbait sindikatu-erakundek EGABren gainean adierazpenak argitaratu zituzten, EGABek honakoa egiaztatzen duen irizpena onetsi izanari buruzkoak: "Diru-sarreren Bermerako Errenta soldata-mailarik baxuenetatik hurbilegi dago, beraz, murriztu egin behar da". Adierazpen horiek direla-eta, EGABek argitzeko oharra bidali du.

### 2010eko martxoa 24

Prentsa-oharra, Ekonomia eta Gizarte Batzordeak Euskadiko EGABren egoitzan egindako jardunaldiak direla eta. Europako EGABek eta Latinoamerikako gizarte-erakundeek berrikuntzaren eta teknologien gizarte-dimentsioa aztertzen dute: tokiko sektore ez tradizionalen gaitasun berritzailea onartzea aldarrikatzen dute, bai eta gizarte-sarea sortzeko gaitasun berritzailea ere, eta giza kapitalaren garrantzia eta sozietate zibileko erakundeen inplikazioa nabarmentzen dute, berrikuntza-prozesuak sustatu eta garatzeko.

### 2010eko apirilak 21

Prentsa-oharra, Euskadiko EGABren Tribunaren VII. edizioa dela eta; bertan, Ekonomia eta Ogasuneko Sailburua den Carlos Aguirrek bere partaidetza Euskal Autonomia Erkidegoko ekonomia- eta finantza-egoeran oinarritu du, eta inguruko eskualdeekin konparatu du. Sailburuak azpimarratu du Euskadin atzerapena ez dela Espainian eta, oro har, Europar Batasunean bezain sakona eta luzea izan.

### 2010eko maiatzak 6

Prentsa-oharra, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Sailburua, Bernabé Unda, Euskadiko EGABren aurrean agertu da, etorkizuneko planak azaltzeko. Hitz egin bitartean, Bernabé Undak exekutibo autonomoaren industria-politikaren ardatz nagusiak aipatzen ditu, bata bestearen atzetik, eta abian jarritako planen eragina azaltzen du, krisiaren ondorioei erantzuteko.

### 2010eko maiatzak 13

Prentsa-oharra, EHAAn Juan Mª Otaegui Euskadiko EGABren Presidente izendatu dela argitaratu ondoren. Agintaritza horren Presidentzia, txandaz, kooperatibek, aurrezki-kutxek, merkataritza-ganberek, kontsumitzaileen elkarteek, EHUk, nekazaritza- eta arrantza-elkarteek eta Euskadiko Lan Sozietateen Taldekatzeak osatutako hirugarren taldeari dagokio.

### 2010eko ekainak 3

Prentsa-oharra, EGABren aldeko irizpenaren ondoren, familien Euskal Behatokia sortu eta arautzeko. Behatokiaren zeregin nagusia da etengabean EAEko familien errealitatea, egoera eta arazoak aztertzea, bai eta Familiei Laguntza emateko Legeak ezarritakoa aplikatzeko garatutako politiken eragina eta inguruko herrialdeetako familiak babesteko eta horiei laguntza emateko sistemak aztertzea ere. EGABren iritziz, araudiak aukera emango du beste familia-eredu bat sustatu eta bultzatzeko; bertan, betekizun ukaezintzat jotzen dira autonomia eta errespetua, kide guztien artean eta bikotearen bi kideen arteko berdintasuna, izan ere, biek dituzte eta partekatzen dituzte maila pertsonalean eta lanbide-mailan aukera berak.

### 2010eko ekainak 16

Prentsa-ohar hau EGABren aldeko irizpenari buruzkoa da, enpresei diru-laguntzak emateko arauak ematen dituen Dekretu Proiektuaren gainekoa, ingurumena babesteko inbertsioa egiteko. Bertan, aldatu beharreko arauaren zenbait puntu nabarmentzen dira. EGABek uste du, hondakinak kudeatzeko inbertsiorako laguntzak emateari dagokionez, zorrotzegiak diren baldintzak ezartzen dituela.

### 2010eko ekainak 30

Prentsa-oharra, EGABren aldeko irizpenari buruzkoa, Euskadin bidaia-agentzien jarduera arautzen duen dekretuaren gainekoa. Euskadiko EGABek Eusko Jaurlaritzak sektore honetako jardueraren araudi-garapena egiten duen lehenengo aldia izatea nabarmentzen du. Era berean, ikuskapenak indartzea gomendatzen du, bai eta arau-hausteak tipifikatzea ere, sistemak behar bezala funtzionatzeko. Aldeko balorazioa gorabehera, Batzordeak ohartarazten du araudi berriak sartzen duen tramiteen sinplifikazioa ez dela egin behar trafiko ekonomikoan segurtasunaren, lehia leialaren eta erabiltzaileen eskubide-babesaren kalterako.

### 2010eko uztailak 2

Euskadiko EGABek aldeko irizpena ematen du, diru-sarrerak bermatzeko eta gizarteratzeko Legea aldatzeko. Prentsa-ohar honetan, EGABek honakoa baloratzen du: aldaketak estrategia integrala osatzen du, eta horrek enplegua ezartzen du puntu nagusi gisa, gizarteratzeko. Bestalde, Batzordeak uste du proposatutako neurrien aplikazio eraginkorrak zenbait tresna behar dituela eta horiek "gaur egun, zehaztu barik daudela, oraindik". EGABek uste du positiboa dela arauak Lanbideri zeregin nagusia ematea, Euskal Autonomia Erkidegoan garatzen diren enpleguaren politikak kudeatzeko; baina, hala ere, azken horiek oraindik transferitu ez direla gogorarazten du.

### 2010eko uztailak 19

Prentsa-oharra, Lehendakariaren eta Euskadiko EGABeko Presidentearen arteko erakunde-elkartzeari buruzkoa. Hau da lehenengo elkartze ofiziala, Juan Mª Otaeguik kontsulta-erakundeko presidentearen kargua hartu ondoren. Elkartze honetara, gainera, Enplegu eta Gizarte Gaietarako Sailburua, Gemma Zabaleta, ere bertaratu dira.

### 2010eko uztailak 22

Prentsa-oharra, Euskadiko EGABren aldeko irizpenaren ondorengoa, lehiaren euskal agintaritza sortzearen gainekoa. Eusko Jaurlaritzaren lege-aurreproiektuak lehiaren euskal agintaritza sortzea aurreikusten du, gai honen gaineko zeregin guztiak gauzatuko dituen organo bakar gisa. Erakunde honek Lehiaren Defentsarako Euskal Auzitegia ordezkatuko du, bai eta Lehiaren Defentsarako Euskal Zerbitzua ere. EGABek uste du proposatutako erreforma bat datorrela nazioartean gehien zabaldutako antolaketa-ereduarekin.

### 2010eko urriak 13

Prentsa-oharra, Philip Cooke Galesko Unibertsitateko (Cardiff) Eskualdeko Garapen Ekonomikoari buruzko Ikerketan katedradunaren hitzaldia dela-eta, EGABek antolatuta. Philip Cookek adierazi du Europako eskualdeetako ekonomien etorkizunak “garapen inteligente, eraginkor, berde eta sortzailea izan behar" duela. Testuinguru honetan, eskualdeek diziplina arteko prestakuntzen oinarria eskatuko dute, sormena eta zeharkakotasuna, zentzurik zabalenean, oinarrizko elementu izateko.

### 2010eko urriak 15

Prentsa-ohar honetan, Euskadiko EGABek modu positiboan baloratzen ditu erretzaileak ez diren pertsonen eskubideak babesten dituzten legezko aldaketak, Batzordearen irizpena eman ondoren, tabakoaren kontsumoa arautzen duen Legearen aldaketaren aldekoa. EGABek zenbait ohar ezartzen ditu, besteak beste, modu boluntarioan erretzeari utzi nahi dioten langileei erretzeari uzten laguntzeko planak sustatzea. Debekuez gainera, Batzordeak eskatzen du EAEn kontzientziatzeko ekintza eraginkorrak hartzeko. Lege aitzindaria eta oso zorrotza dela ohartarazten du, eta horrek ezinegona eragiten dio, agindu guzti-guztiak betetzeari dagokionez.

## 2010eko azaroak 1

Prentsa-oharra, klima-aldaketari aurre egiteko legearen aurreproiektuaren aldeko irizpenaren gainekoa. Euskadiko EGABek uste du klima-aldaketaren politika Berotegi-efektuko Gasen igorpenak gutxitzeko izan behar dela eta, apurka-apurka, karbono gutxiko teknologietan eta teknologia berritzaileetan oinarritutako ekonomiarako trantsizioa egin behar dela, enplegu berdea sustatu eta lehiakortasuna hobetu ahal izateko.

## 2010eko azaroak 2

Prentsa-oharra, Eusko Legebiltzarrean 2009ko Memoria Sozioekonomikoa aurkeztu delako. Agiriak euskal ekonomia- eta gizarte-egoera aztertzen ditu, eta kontsultarako erakundea osatzen duten ekonomia- eta gizarte-eragileek partekatzen duten diagnostikoa eskaintzen du. 2009. urteko datuek ekonomia-krisiaren sakontasuna erakusten dute, kezkagarriak diren zenbait datu daudela kontuan hartuta: lanpostuak galdu dira, batik bat gazteen artean langabeziak gora egin du. Euskadiko EGABek hobekuntzak eskatzen ditu, produktibitate eta lehiakortasunaren arloetan, eta, horretarako, hezkuntza eta prestakuntza sustatzeko eskatzen du, bai eta ikerketa, berrikuntza eta teknologiaren transferentzia ere. Halaber, *I+G+b*n inbertsio publikoa handitzeko apustua egiten du; horretarako, baliabideak euskal ekonomiak hobekien bizi dituen segmentuetan ezartzen ditu.

## 2010eko abenduak 9

Prentsa-oharra, Eusko Jaurlaritzako Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismoko Sailburuak, Bernabé Unda jaunak, Euskadiko Lehiakortasun Plana aurkeztu ondoren; plana Eusko Legebiltzarrean onetsi zen aurreko astean. Plan hau zeharka diseinatu da, eta bere oinarrizko filosofia, Bernabé Undaren hitzetan, “krisiari aurre egitea, lehiatzea eta lideratzea izan da, transformazioaren indar eragile gisa”.

## 2010eko abenduak 17

Prentsa-oharra, EGABek Ómnibus Legearen aurreproiektuaren alde emandako irizpenaren berri emateko. Lege honek euskal ordenamendu juridikoa erkidegoko zuzenbideak zerbitzuen erabilera eta jardueren erabilera arautzeko eremuan xedatutakoaren ildotik ezartzen du. Helburua da betekizunak eta tramiteak sinplifikatzea, zerbitzuen jarduera garatzeko, Europar Batasuneko edozein herrialdetan. Arau hau indarrean jartzeak esan nahi du hamar bat legetan aldaketak sartzea. Euskadiko EGABek gogorarazten du araudi berriak ez duela izan behar trafiko ekonomikoko segurtasunaren, lehia leialaren eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen eskubide-babesaren kalterako.

## 2010eko abenduak 22

Prentsa-oharra, Euskadiko EGABeko Osoko Bilkurak Inmaculada Gallastegui kontsulta-erakunde honen memoria sozioekonomikoa egiten duen batzordearen Presidente izendatu du. EGABren Memoriak euskal ekonomia- eta gizarte-egoera

aztertzen ditu, eta kontsultarako erakundea osatzen duten ekonomia- eta gizarte-eragileek partekatzen duten diagnostikoa eskaintzen du. Horrenbestez, eragile horiek batera egindako eta adostutako hausnarketarako lana da, kontrastatutako datuak oinarri hartuta.

### 2010eko abenduak 23

Prentsa-oharra, Osasun Arretarako Euskal Kontseilua arautu duen Dekretu Proiektuaren aldeko irizpena dela eta. EGABren arabera, Dekretu Proiektu honek proposatzen duen erakunde arteko koordinazioa EAEko gizarte- eta osasun-arloetan arreta emateko ereduaren oinarrizko elementua da. Horrela, positibotzat jotzen du Dekretu Proiektu honek Gizarte Zerbitzuetako Legeak ezarritako legezko araua betetzea, Gizarte eta Osasun Arretarako Euskal Kontseiluaren osaera eta funtzionamendua arauz ezartzeko. EGABek jaso nahi du Osasun Arretarako Kontseilu honek ez lituzkeela gutxitu behar beste kontseilu batzuen gaitasunak, partaidetza handiagokoenak, eremu hauetan lan egiten dutenenak.

### 2010eko abenduak 27

EGABek aldeko irizpena eman dio Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokia sortzea arautzen duen dekretuari. Euskadiko EGABren ustez, erakunde berri hori ezinbesteko tresna izango da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema osatzen duten zerbitzu eta prestazioetan kalitatearen hobekuntza sustatzeko eta gizarte-zerbitzuetako profesionalen prestakuntza etengabea garatzeko. EGABren ustez, Gizarte Zerbitzuen Euskal Behatokiak "Behatoki nagusia" izan behar du, alderdi sozialean berezkoak diren gaiak barne; horrela, beste behatoki batzuk bertan behera utz daitezke, diru-kutxa publikoetan aurrezteko.

## WEBGUNEA

Korporazioaren web orrian informazioa ematen da, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen, bere jardueraren eta edizio-produkzioaren gainean.
*Berriak* atalaren bidez, eguneratutako informazioa jaso daiteke, Batzordeak garatzen dituen jardueren gainekoa, besteak beste: irizpenak ematea, txosten eta azterlanak egitea, hitzaldiak antolatzea, etab.

Euskadiko EGABek argitaratutako lan guztiak sarrera librekoak dira eta pdf formatuan karga daitezke behera.

## ARCHIBO BISUALA

EGABek argazki digitalen artxiboa du, Batzordeak berak egindako ekitaldi eta bilera garrantzitsuenen gainekoak. Argazki horiek aldizkari eta egunkariei eskaintzen zaizkie, unean-unean, lana erraztearren.

## 2. Dokumentazioa

Dokumentazio Zerbitzuaren helburua da oinarrizko agiri-azpiegitura kudeatzea, batzordekideek eta Kontseiluko langileek beren lanak egiteko dauden agiri-baliabide interesgarriak ezagutu eta erabili ahal izateko (irizpenak, memoriak, azterlanak, txostenak... ).

Helburu hori betetzeko, honako zerbitzuak ematen ditu:

- Agiriak eskuratzea.
- Agiri-funtsa antolatu eta zaintzea.
- Helbide elektronikoaren bidez, liburutegiko nobedadeen aldizkaria egin eta zabaltzea (astekaria)
- Aldizkariak zabaltzea (astekaria)
- Bibliografia- eta agiri-bilaketak, neurrira egindakoak.
- Txosten monografikoak egitea, intereseko gaien gainekoak.
- Kanpoko buletin elektroniko espezializatuak banatzea

## 3. Argitalpenak

2010. urtean, honako argitalpenak editatu eta banatu ziren:

- 2009KO JARDUEREN TXOSTENA.
  - Edizio elebiduna, 700 ale.
- 2009KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOA:
  - Euskaraz inprimatutako edizioa, 400 ale
  - Gaztelaniaz inprimatutako edizioa, 850 ale
- 2009KO MEMORIA SOZIOEKONOMIKOAREN LABURPENA ETA OHARRAK.
  - Edizio elebiduna, 500 ale.
- IRIZPENAK.
  - 15 irizpenen edizio elebiduna. 700 aleren inprimaketa.
- 2010EKO RTAREN TXOSTENA. ITSASOKO ENERGIA BERRIZTAGARRIEN GARAPENA: ARRAKASTA-BALDINTZAK ARKU ATLANTIKOKO RTAREN ESKUALDEETAN.
  - 1.000 aleren inprimaketa.
- BULETINAK.
  - 1.000 aleren inprimaketa.
- EGABREN TRIBUNA. Edizio elebiduna:
  - Maravillas Rojo. “Enpleguaren zerbitzu publikoak krisiaren aurrean”. 1.300 aleren inprimaketa.
  - Manuel Pimentel. “ETEak eta enplegua krisialdian". 1.300 aleren inprimaketa.

## VII. KAPITULUA

# Euskadiko EGABen legeria

- **3/1979 LEGE ORGANIKOA,** 1979ko abenduaren 18koa, Euskal Autonomia Erkidegoko estatutuari buruzkoa
  (1979-12-22ko 306 zenbakiko BOE), (1980-01-12ko 32 zenbakiko EHAA)

- **9/1997 LEGEA,** ekainaren 27koa, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordeari buruzkoa
  (1997-07-24ko 141 zenbakiko EHAA)

- **1997ko abenduaren 18ko osoko bilkuraren ERABAKIA;** horren bidez, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamenduari buruzko Araudia onetsi zen
  (1998-01-6k0 10 zenbakiko EHAA)